

Antonio Maria Labaien

IPARRAGIRE

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Teatro osoa euzkeraz (I)*, Antonio Labayen. La
Gran Enciclopedia Vasca, 1976

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=276>

IPARRAGIRE

BI EKITALDI
ta azken-zati edo Epilogoia dun
antzerkia

1933.

TOLOSAN: LOPEZ-MENDIZABALENEAN

ANTZEZ-LAGUNAK

IXABEL
LEOKADI
JOXEPA
GUADALUPE
LUTXI: Mirabea
JOXAKIN
IPARRAGIRRE
MARTIN ANTONIO
ZERAIN
BIZARGORRI
BIXENTE
I ARRANTZALEA
II ARRANTZALEA
KARABINERO BAT
NEKAZARI ta ARRANTZALEAK

AURRE-ITZA

«Ad veritatis imaginem fictae».

Antzerki auxe irakurri ta aztertzeke ontartea egingo didatenai adierazpen labur batzuek zor dizkiet: nere lantxoak sortutzerakoan asmo ta gogo zeintzuk izan ditudan aditzera eman bearren nago.

Iparragirre deritza. Ez da ez komedi ez trajedi, bai bien arteko. Norbaitek izen utsa ikusitakoan iriparrari ezin eutsiaz errukituko nau, agian, berak jakingo du zer dala-ta.

Beste batzuek, berriz ez dute gaia egokia arkitu: ezaunegia edota urriegia. Bertsolari arlote baten ibilkerak ez dirala antzerkira aldetzeko diña.

Geitxoenak, uste det, nere aukera aintzakotzat artu arren ez dute apika oniritziko aurkeztu ta tajutu dedan era.

Batzuei ta bestetzuei eskeñiak dijoaz darraikioten zergati ta zuzenbideak. Ez dakit «estarijitarra»ren ala «Pernando Amezketarra»ren arrazoiez asi. Nere ezjakiñez bigarrena obeto dagokit. Alaz guztiaz, jakitunai ikasitako zerbait azaltzen badizutet, da adierazteaga-

tik, bai erriaren erakutsiak, eta bai jakitunen iritzi ta onuak gogoan ibilli ditudala onoko antzerki au osatze-ko.

Iparragirre gaitzat artu badet euskaltasunean eza-gunenetakoa dalako izan da. Bai al zan aldi artan beste gizon bat ain entzute orokorra izan zuanik?

Ez det epaitu nai otsaundi ori ona ala txarra danik; gurea bai ordea, Euskal-Erri guzikoa, iparraldean bezenbat egoan zabaldua. Europa guzira ta Amerikararino eldu zana.

Ezaunegia izatea, beraz, kaltegarri ez ezik laguntzalle bikain ta baldintzarik nagusiena da, ikusle ta entzuleen, baitan, kolkoan, izuikara (*pathos*) ta pozkarioa (*sofrosyne*) sortze arren.

Gaur dan egunean *Iparragirretzaz* maizago gaizki itzegiten dala badakit; aintzakotzat artu nai ez dute-nak badirala ere bai. Gizon zan aldetik utsegite asko izan zituan noski. Guzien berri badet eta ez dizut, iñolaz ere, estali nai izan. Ori ez da antzerkigillearen egi-tekoa. Nere «*dramatis personae*» ezur eta mamizkoak dira ta ez «Billintx»eren zaldi zuriaren antzekoak kar-toiaz egiñak diruditenak.

Euskaldunok ekandu on askoren jabe bagera ere, alkarrenganako ezin ikusi ta griña txar ugari ditugu

aspaldidanik. Arrotzaren zoriona naigo degu gere jatorrikoarena baño.

Au nik baño lenago Larramendi aba argidotarrak esana da.

Ezin ukatu diteke «*Iparragirre*» leñargia izan zala bere arlotekerian; ta euskaltasunaren suspertzalle, Euskal-Erria lozorroan ta argalduta zegon garai batean. Beste ezergatik ez bada ere aren oroipena omendu dezagun.

Azkenik, bain gaia aukeratuta nola ta zeintzu bide-tatik elbururaño zuzendu dedan aitatzea nijoakizute.

Isidor deunaren itz auek goiburutzat artu ditut: «ad veritatis imaginem fictae» au da: egiaren ispillu ala irudi. Igarriko diozute ontaz esan nai dedela nere antzerkia «*egi antzean*» antolatuta dagola.

Antzerki mota artean, gizarteko, irritsu, erakusle, elizkoi, olerkitsua ta abar egizalea (*realista*), au da, egi antzean tajutzen dana artu det eredutzat.

Orretara euskaldunen izate berak narama ta gure barruko argurio ta zaletasunez ongi datorrela uste iza-teak.

Au dala-ta, erdi trajedi, «*zoritxar-antzerki*» ontan ez dezute, beste zenbait antzerkitan bezela, bakarrizketarik arkituko. Jarduna ta erausia alkarren artean

egin oi degu, eroak ez ezik. Gañera, ontzat artuta dago, mintzoa ez dala norberaren gogoia agertzeko biderik bakarra. Agurogo dijoaz adimenaren oldozpenak itzen otsak baiño.

Beste zertxo bat: abo-izketa (*erderazko: aparte, parler à part, beseitsprechen*) ta antzeko lakemenak nere lanetik urrutiratu ditut. Irudigille bakoitzaren eza-guera, gerok zuzen, berak egin ta diotenarengatik burutuko degu; gerok entzun ta ikusten degunagatik, ta ez besten esanetik nabaitu zer izakera duten.

Egintzaren iraun aldia, egun batetik besterañokoa.

Aitatutako bakantasunak ta zenbait geiago izan bide dira «*egiantzeko*» antzerkiaren ezaugarri.

Orok ordea aipatzeko aurre-itx au gogotik luzatu bearuko nuke. Jakin-gose ta antzertizaleak, ezaugarri orien albistiak nun nai arki litzazkete. Onela izan arren eleketa, izkerari buruz, zerbait geiago erantsi bear det. Izkera Gipuzkoan darabillgun berbera da. Itzen bukaera ta aldakuntzak nere belarriz entzunda bezelatsu ipiñi ditut. Arreta aundienaz, lan au eratzen alegindu naiz. Alaz guztiaz, gurdi bat oker oar ditzakezute, estu-estu azterketa egitera bazoazte. Sarritan, errijardunean, gure belarri edo entzumenak, bizpairu itz batean entzunagatik- adibidez bukaerako *n* ta

asierako z alkar arkitzen diranean- ez ditut nastu ta alkarrekin josita idatzi nai izan, fonetika arauz, naspilla izugarria ez sortzeagatik.

Irudigille (*personaje*) bakoitza, al izan dedan giñoan bere errialdeko euskera berezian mintzatzen da. Ez da erreza ordea, erri batean asten dan izkera mota ta besteraño dijoana banatzen. Gutxi-gora-bera artuak daude. Norberak soñeko jakiña daraman antzo baita ere gogo-jantzi berezia izan dezan.

Ez dezala iñork uzte izan Iparragirrereren bizitzaren kondaira oso ta zeatza nere lantxoaren iru ekitalditan emango diodanik. Ez. Oar oni: gertaera guziak ogeitamasei ordu dirau. Garrantzi audienekoak nik aukeraturakoak izan ote zitun? Berau ote da Iparragirrereren bizitzan antzerki-une nagusia?

Asmatu dedan ala ez zuek erabakiko dezute; ta nere egiantza «*gezurrantza*» ez ote dan ere bai. Ontan antzerkigillearen itzak indar gutxi du. «*Die Sprachkraft ist ind dem kritiker*». Itzen indarra aztertalleen iritzian omen dago. Onela dio lenago aitaturiko Kerr alemanak. Norbaitek ikusi lezake nere begiak iritxi ez duten argitasun edo lausoa. Ta baita ere, baliteke zenbaitei *Iparragirre* au irakurri ala ikustean, neronek idaztekoan gogoratu ez zaizkidan ikurpen ta

xedeak otutzea.

Amaitzeko. Erriak ta geroak ondoen epaituko du. Beren oniritzia irabaztearren leiatu naiz. Gaia egokia nun. Motz gelditu banaiz nerea bakarrik da errua.

LABAYEN'DAR ANDONI M.^a

LENENGO EKITALDIA

LENBIZIKO AGERRALDIA

(Udazkeneko egun argitsua. Egoaize giroak gure begiak indartuta urrutiraño daramaz, inguruko lur eta itsasalde guztiak garbi agertzen zaizkigularik. Arratsaldea da; eguzkia goi zamar oraindik. Aruntz Ondarrabi uria. Bidasoz emendik ibai ertzean bezelatsu, eskerretan, ostatu-sagardotegi etxe baten atadia. Bolatokia; karabinero txabola. 1878ko Urriaren azkenengo egunetan gaude. Igandez. Etxe aurrean bizpauru mai ta alkiak. Sargori dago. Aize zakar ta arroa dabil).

Iparragirre astiro-astiro sar bedi. Itxuraz ain eza-gun diran irudiak erakusten digun eran: bizar zuri-luze duna; arpegiz zurbil, soñez zarpaildua. Jantzi illunak, onak izanak. Ego-aizeak makurtu egiten du sorterrira sartzan eragotzi nai balioke bezela. Ingurumai guziak maiteki aztertzen ditu mendialdera jasoaz begaldia. Ta geldi-geldi antzeztokiko mutur batetik bestetaño

dijoalarik aienatzen da...

Unetxo bat geroago karabinero batek izkillu ta guzi, zeletan darraikio, aren bidetik joanez gaizkillen bat edo muga-lapurra dalakoan.

BIGARREN AGERRALDIA

(Zerain eta Bizargorri sagardotegitik irtetzen. Zerain etxe nagusia da, goierritarra, ta Bizargorri arrantzalea. Biok alatsu, 60 urteko adiñekoak).

ZERAIN: Ta, nolakoa dago upel berrikoa?

BIZARGORRI: Polita! Ezta sagardo txarra. Gozo punta badu baña...

ZERAIN: Geldi dagoala juango zako. *(Leiaz)* Oñe!... ee, ustez ongi urten zan ba... Sagar aulok, lasti-meia! Emengo sagarrak ez du indarrik. Gure alderditan, gizona, sagarra... matsa... matsak aña indar badu-ta.

BIZARGORRI: Ardoak beti ere indar geiago du! konpañeo! Getariko txakoliña bera mastea (burubagatik) aguro igotzen ezpada ba.

ZERAIN: Emengo ardoa zer da ba? Ia, ni etxetik atera

nintzen urten, irurogei gurdikara sagar bildu ziten, lurrekok jaso barik. Beaz pentsa.

BIZARGORRI: Ezta gutxi-gutxi.

ZERAIN: Etzan gere etxen añako sagar, goierriko iñon-go baserritan. Bi urtez bein esan oi da sagarrak ematen dola. Ba, gure etxeko sagastitatik batzu-batzuek urtero-urtero loratzen ziren.

BIZARGORRI: (*Irritsu*) Ez omen da arantzabako loreik.

ZERAIN: Ezta ori egi «berdaderoa». Gurek etzuten ematen sagarra besterik. Arantza ta nearra auzorako izaten ziren guren batzeturrenen eta eurenen ez.

BIZARGORRI: Urte ona guztientzat ona da. Saldu ezin badira jan egiten dira. Arrantzaleak egiten deguna. Azkenerako alatsu, San Silbestre, itxa-soak jaten ezpagaitu.

ZERAIN: Eztie gauza berdiñek. Goierrin beitu bearra dao. Gure etxen bi idi pare ta lau bei. Ia geo! Gobernau itzatzu! Denbora baten gure etxen sekulako lana izaten zan. Orain ere an banego.

BIZARGORRI: Emen ez zerate gaizki bizi. Aberats zaude... Ezkonduta etxia zubena. Gutxigokin bizi naiz. Txalopakín.

ZERAIN: (*Keskatsu*) Etxea nerea balitz... salduta errira

jungo nintzake. Zoaz andreari esatea...

BIZARGORRI: Leokadi?... zu zuazen lekura...

ZERAIN: (*Etendurik*) Etzaiozula esan gero!

BIZARGORRI: Ez, ez. Ez naiz ni andreari olako gauzik esatera sartuko.

ZERAIN: (*Kolkoka*) Ba,... zuk bakarrik dakizu emen ezin oitu naizela. Andre ta familie emen ditut baña, goierriko bizimaña. Zuri ez altzazu olakorik gertau? ezin oitu edo. Emengo jana... pran-tzesa...

BIZARGORRI: Ni guztira jarria nago itxasura ez ezik.

ZERAIN: Zergatik opizioz aldatzen eztezu?

BIZARGORRI: Ordu onean! Onezkero!... aldatu... Geta-rian bataiatu niñuben Anton Mari izenakin. Gero Ondarrabi onta etorri giñan ta emen Bizargorri berriz. Bizargorria aldatzen ari da bañan Anton Mari ez. Ez giñan ezkondu... ez aldatzeatik eta... onuzkero ala biarko degu.

ZERAIN: Neri ba, onoko itsas aizeak gaitz egiten dit. Igualeko sanidadea dago goikaldetan... Gaur ere ego aize zakarra dao. (*Bekokiko izerdia eskuaren gibelaz kendurik*).

BIZARGORRI: Giro ederra anguletako. Illargi betia.

ZERAIN: Txarrena sagardok egiteko.

BIZARGORRI: Erateko onenena!

ZERAIN: Beste baso bat erango dezu.

BIZARGORRI: Ez! Eskarrikasko, naikua det. Illundu bañan len eztet barrena pixtu biar. Eguzki ederra dao oraindikan-da... tresnak prestatzea nua.

ZERAIN: Gura dezun bejela.

BIZARGORRI: Estimatus dago. Ara, ni bañan egarri geiagoko gizonak datozkitzu!

IRUGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Bixente ta beste bi arrantzale gazte.

GUZTIOK: Keai! Kaxo jaunak! Ola!...

BIXENTE: Dagoaneko etxera Anton Mari?

BIZARGORRI: Ez, egun guztian alperkerian egongo nak.

I ARRANTZALEA: Andrea zai bai dauka.

BIZARGORRI: Itsasun zeukat nik andrearik txarra!

ZERAIN: Noiz abitzen zerate?

II ARRANTZALEA: Illuntzaldian, legorrear bateon bat ezpaldin bagera gelditzen. Ez al da ala Anton Mari?

BIZARGORRI: Bai, norbaiti itxoegin bearra izango da.

Gero zalapartak. Banoa,... Or konpon!

I ARRANTZALEA: Konpesatzea al zoaz irten bañan len?...

BIZARGORRI: Ez parrik egin! Onenean bearrean arkituko aiz eorri ere. Itsasoan ikusten dituk gizonak. Igari ere ba al dakizue oraingo umeak?... Aita Mari alaxe ito ukan, Donostiako kai aurrean bi gazte txepel ateratzeagatik.

I ARRANTZALEA: Gizona asarretzen zaigu.

BIZARGORRI: Asarre edo masarre... Aditu itzak!

BIXENTE: (*Besotik eutsiaz*) Ez ola jua Anton Mari. Alkarrekin ibilli bear degu illabetean. Santa Katalina arte ez degu berriro Ondarrabi ikusiko.

BIZARGORRI: Goizegi arrantz ona egiteko. «Santa Katalina noiz da, bixigutako goiz da». Egualdia ere...

I ARRANTZALEA: Egaluzeak arrapatuko ditugu.

ZERAIN: Onik etorri beñepein! Itsasoan poliki irabazten da ta, gutxi gastau... Ara Amerikak emen...

BIZARGORRI: Arrantzale gutxi aberasten dira.

ZERAIN: Amerikan ere ez due guzi-guztik diru egiten.

BIXENTE: Gaur amerikano batzuk etorri dira. Sonbrallukikoak ziran beintzat.

II ARRANTZALEA: A, bai!

BIXENTE: Or, Aduanan, ikusi ditugu andre Leokadikinda. Kaballero gazte bat eta... bi persona...

II ARRANTZALEA: Beste agure bat bizar txuriduna....

BIZARGORRI: Ez, beti beltza izatea nai al dek.

II ARRANTZALEA: Zugatik esan al det ba....

I ARRANTZALEA: Berak bakarrik bizarra dula zirudik.

ZERAIN: Ordun Joxekin Zumarragako nere lengusua ta izango dire. Ameriketatik semea zetorkien ta senar emaztek Burdeosera junak ziren. Aberatsa emen dator-ta. Ni ere zer nolako mutilla dagon ikustera banoa.

I ARRANTZALEA: Esaiezu txalopan ibilli nai badute emen gaudela. Sus atzuk irabazi biar dizkiau.

BIZARGORRI: Ondo aspertuk etorriko dituk baporien etortzez. (*Zeraini*) Bide ortatik nua ni ere.

ZERAIN: Amerikanok txanponai errepau egiten die. Goazen goazen lenbailen. (*Bizar ta biak dijoaz*).

I ARRANTZALEA: Alderdi ederra zeukagu! (*Bixenteri*) i! sagardua eran bearko diau azkeneko aldiz.

BIXENTE: Kaskarra zio. Eniak eratera; emen geldituko nauk, txalopa or zeukat ta. (*Ibai alderuntz urrutiratzen da*).

II ARRANTZALEA: Sargori zio ta ederki egarritu nauk

beintzat. Sartu gaitean.

LAUGARREN AGERRALDIA

Joxepa, sagardotegiko atean agerturik.

I ARRANTZALEA: Ara! Joxepa! Joxepatxo! Au da emakumea! Sagardua baziña trago batean... ustuko zinduket.

JOXEPA: *(Asarre kiñua arpegiaz egin da)* Erua!...

II ARRANTZALEA: Atsaldeon Joxepa! Zer dezu orren trixte?

JOXEPA: Trixte al nago?

II ARRANTZALEA: Zeorrek ezpadakizu...

I ARRANTZALEA: Gu arrantzara guazela jakin dik ba....

JOXEPA: Zubekin protxu aundia daukat enetxua. Asko gogoratuko zerate zubek nitzaz. Alajaña! ez nago ni zubei itxoiten. Zer uste dezue?

I ARRANTZALEA: Tira Joxepa, bueltakuan belarritakok ekarriko dizkitzut olakuak! *(Eskuiko beatzak bilduta ezpañeta eramanaz).*

II ARRANTZALEA: Beti bueltakuan. Aberastuzean esan nai du.

JOXEPA: Eskarrikasko bañan... ez nao belarritakoan paltan ezpadakizu ere.

I ARRANTZALEA: Karabineron batek emanak edo ola.

JOXEPA: (*Minduta*) Ez jauna, neonek erosiak. Karabineruak? ortakoxe nago! Zer uste dezue?... Pobria naiz baña eztu nigatik iñortxok ezer esango.

I ARRANTZALEA: Esan?... polita zerala ta... gu itxasun gabiltzanean neskatz eder guztik kentzen dizki-gutela.

JOXEPA: Gezurra ugari. Gañera aguro ibiltzea dezute. Oraindik emakumezkoak gelditzen dira bai. Zertako etzerate esposatzen?

II ARRANTZALEA: Gero alargunik ez uzteagatik.

I ARRANTZALEA: Neska zarrrik uztea baño obia dek, motel.

JOXEPA: Ez, nik ba, naiago det ola egon. Gizona beti tabernan eta sagardotegian eukitzeko zubek bezela; ta aurrak goseak ta andrea lanean.

I ARRANTZALEA: Zu azkenean karabineron batekin ezkonduko zera.

JOXEPA: (*Asarre*) Eta zuri, zer? Obe!... Besteak aña naiz ni ere! Petral alerta! Alproja galanta zu.

I ARRANTZALEA: Ixo! Sardiñak saltzen ari zerala esan-

go dute.

II ARRANTZALEA: Baxo bana atera iguzu.

JOXEPA: Juaten zeratenean pake ederra utziko dezute errian.

I ARRANTZALEA: Joxepa, zinta gorri ori eman bear didazu garrangari jartzeko.

JOXEPA: Ortakoxe daukat. Mutil abek! Beste laguntxon batek emango dizu nik baño gutun oberik.

I ARRANTZALEA: Zeñek, zeñek? (*Irurok sagardotegian sartzen dira*).

BOSGARREN AGERRALDIA

Bixente, gero Guadalupe.

BIXENTE: (*Ibai aldetik agertzen da besteak noiz sagardotegian sartuko ziran itxoiten izan dan baten eran; beldurti dator iñork ikusi lezaken zalan-tzaz; astiro dabil, eskui ezkerreara begiratzen dualarik. Poliki, poliki etxeruntz dijoa ormak ikututzeroño. Ate aurrean zai gelditzen da pixka batean. Gero ixil zamar ots egiten du.*) Gualupe! Gua...lu...pe! (*Berriz sendoago*) Gua...lu...pe...!

(Zerbait ikaraturik atzeruntz egiten du. Ontan etxeko atea ixilki zabaltzen da ta Guadalupe irtetzen da atean bertan gelditurik. Bixentek oartzan dualarik urbiltzen zaio, oso bertara etorri gabe ta lotsati itz totelez dasa) Gualupe!

GUADALUPE: *(Erdi arrituta)* Zu emen?

BIXENTE: Iñor etzeola banekien.

GUADALUPE: Bai, baña...

BIXENTE: Zu bakarrik zeundela.

GUADALUPE: Joxepa or dabil nunbait.

BIXENTE: Sagardotegira barruna sartu dira nere bi lagunekin... *(Ixil unea)* Azkeneko eguna da-ta. Banekien iñor etzeola-ta...

GUADALUPE: Bai, bakarrik utzi naute ama ta estaziora jun diralako. Osabak-eta orain emen datoz Burdeostik. Eta lengusuba oso aberatsa....

BIXENTE: Ni ere Ameriketa joango banintz...

GUADALUPE: Zertara?

BIXENTE: *(Begiak jetxiaz)* Aberastutzera. Emen beti pobre. Zurekin egotea lotsatzen naiz... Arrantzale bat...

GUADALUPE: Orren gaizki bizi al zera?... Besteak ere or dabilta. Ara Joxe Jabier Tiñakunekoa esposatu da ta bapore berria ekarri dute. Ta denda?

nolakoa! Bera arrantzara juaten da.

BIXENTE: Ni ere lenago gogo onez juten nintzan. Orain askotan bururaziuak jartzen zaizkit ez naizela zure lain... Ni arrantzale bat besterik...

GUADALUPE: Kapitan pilloto ere izango zera! Besteak ere zu bezelakuak dira.

BIXENTE: (*Begiak jasoaz*) Emendik ordu betera legorri adio egingo diogu puska baterako.

GUADALUPE: Erregutuko det ondo ibilli zaitezten. Guadalupen izan al zera?

BIXENTE: Nere lagunak ere ez dira jun da; bakarrik igotzea... Itsasuan sartzeko bildurra nuela esango zuen.

GUADALUPE: Agorreko Ama Birjiñan egunean joan ziñan ba. Ez al zera gogoratzen? Soldadu jantzi-ta.

BIXENTE: Orduan guztiok joaten dira. (*Ixillunea*).

GUADALUPE: Urrutira zaitezenean, Guadalupera igoko naiz aguro itzultzeko eskatzera.

BIXENTE: Askorentzat itsasotik geiago ezpanintz etxeratuko obe.

GUADALUPE: Zeñengatik esaten dezu ori?

BIXENTE: Zuk ere badakizu nik bezin ondo.

GUADALUPE: Beti orrekin zaude! Biok bakarrik ez al

gara konpondu bear ba? Gañera (*Ixillago*) nere amak ba daki zurekin nola nabillen; eta etzan asko asarretu, baietz -berak galdetuta- esan nionean.

BIXENTE: Eta baietz esan zenionean, zer arpegi jarri zun?

GUADALUPE: Ez nion arpegira begiratu bañan... begik jaso nitunian esan zidan erdi parrez aitari esango ziola. Ta aitak ez dit oraindik ezer esan.

BIXENTE: Bañan nunbaitean esan du...

GUADALUPE: Ta zer? Ez al dezu nere itza sinistatzen?

BIXENTE: Bai Gualupe... ta nerea ere barren-barrendik emana daukazut, ez det nai ordea neregatik gurasoakin asarretu zaitezten... (*Biotzikaraz*) Itsasora noa, eta ez naiz geiago etorriko! Ez luteke par gutxi egingo! Pobrea naiz, arroa ordea! (*Joan naiean abitzen da; Guadalupek besotik eltzen dio*).

GUADALUPE: Bixente! zaude ixilik!... Ez deadarrik atera! Gure itzak aitu lezazkite... Emen... gaizki gaude; laister aita-ta etorriko dira. Gero, Bartolonea gauza billa joan bear det. Ixoin nai badi-dazu?

BIXENTE: Bai. Ez gaitzala iñork ikusi. Nere lagunak,

an...

GUADALUPE: Garai ortan illun dago; laguntzen badiazu ez det ikarik izango.

BIXENTE: Itxoingo dizut ba!

GUADALUPE: Ama Birjiñan domiña bat emango dizut zutzako erosi dedana.

BIXENTE: A ze muxuk artu bear dituana!

GUADALUPE: Batere gabe geldituko zera. Zuaz, aurki emen dira-ta... Zubitik jungo naiz...

BIXENTE: Bai! (*Liliratuta*) (*Atzeruntz oarturik*) Egitan!... badatoz! (*Joanez*) Gero arte ba!

GUADALUPE: Ariyo! (*Etxean sartzen da*).

BIXENTE: (*Eskutatzen dalarik*) Ikusi nazazutela! ze arraio!

SEIGARREN AGERRALDIA

Bidetik datozela, agertokian, lenengo Martin Antonio «indianoa» bere ama andre Ixabel eta andre Leokadirekin sartzen dira. Martin Antonio gizon gaztea soñeko berriaz jantzita. Leokadi ta Ixabel 50 urtetik gorakoak. Leokadi itsasalde-

koa ta Ixabel goierritarra; onek goierritarren antzera ille gañean buruko zuria eramango; Leokadi ille utsean; Ixabel Martin Antonioren ama arro dator bere semeakin. Ondoren, Joxakin Ixabelen senarra, Zerain eta Iparragirre azaltzen dira. Zerain ezaguna degu; Joxakin gizon mardul eta sendoa da; baserritarra saildu gabea baño. Iparragirre bere azkene-ko urtetan irudiak erakusten digun bezelakoa.

(Aurreneko salla bizi-bizi eleketan).

IXABEL: *(Bere semeari begira)* Aguro ezautu non. Ene ba!... Jesus! bazan jende! Kristauz jetxi zan ontzi artatik. Aik guztik mantentzeko; Jende Aberatsa pranko badago bazterretan. Kalek ere beti beteak. Oso ederki ibilli gera.

LEOKADI: Bai, dirubakin ondo ibiltzen da alde guztietan. Gañera olako semeakin pozik etorri zaitezteke.

IXABEL: Dirue bai gastau-e. Lau «amigo» giñen da sakela aundie bear da bizitzeko. Lau lagun baz-

kaltzeko ta apaltzeko ta guztiko. Gutxigokin ere pasako giñan bañan... Bestela oituta gare... Ta pagautzeko bat bakarra.

MARTIN ANTONIO: Ama! beti lelo orrekin ari da. Ze arraio! Ez bedi estutu, zillar puska bat egin det eta.

LEOKADI: Ori esan, ori, Martin Antonio! Ara gure etxea. Ementxe bizi gera.

MARTIN ANTONIO: Muy lindo!

ZERAIN: A! gure etxea Joxe Mai.

IPARRAGIRRE: Leku eder eta paketsua.

ZERAIN: Zeñek esan onenbeste urte ondoren emen bildu bear giñala. Gogoratzen zera karlixtetan alkarrekin ibilli giñanen?

IPARRAGIRRE: Geiegi. (*Gogoratuaz*) A! Zumala aundia il ezpazuten!

ZERAIN: Neonek ere ez dakit nolatan gerratea pasa-ta igesi onera eldu nintzan, ta sustarrak bota ditut.

JOXAKIN: Etzun ez, txoko txarrik arkitu.

IPARRAGIRRE: Eta zenbat senide dituzu?

ZERAIN: Makiñabat bai; bi alaba, etxen zarrena ta gaztena; beste bat moja daukiena. Bi seme prailetako, onela soldaduzka pasa bearrik ez dute izango-ta. Bestea Donostin opizioa ikasten.

IPARRAGIRRE: Aberatsa zera besterik ez badezu ere. Zeñek lagundua badezu. Urte askotan bizi zaitzela amorioz beteta ta pakean Euskalerrian.

JOXAKIN: (*Iparragirreri*) Primo! nekatua egongo zera onenbeste bidean etorri ta gero. Ni gutxigokin ala nago ta.

IPARRAGIRRE: Ez, ez! Ez naiz nekatzen nere erriko mendiak ikustez. Bi milla ta seireun legua dira Montebideotik Euskalerriraño ta legorrez etorri izan al balitz, oñez etorri izango nintzan, bederik nere ezurak lur maitean utzitzera.

ZERAIN: Ez non asko uste zu ikustea! (*Iparragirreri goitik bera begiratuaz*) Edozeñek ezautze zaitu, ori, Zerañen alkarrekin eskolan ibilliak generalarik. Egia da neuk baño eskola geigo ikasi zendula. Maixu ona izan genun bai... neuk buru gogorra ordia. (*Joxakini*) Onuntzakon nola etzenian esan Iparragirre zetorrenik?

JOXAKIN: Geuk ere ez genekigun-da. Ezautu ere ez genun egingo semeakin etorri ezpalitz.

IPARRAGIRRE: Zuenganatu naiz ba azkenean. Biotz biotzez gure erria ikusteko gogoa banun aspaldian.

LEOKADI: (*Guztioi*) Zerbait artuko dezute? Tira! sartu

zaitezte. Apaiteko ordua urrutian dao-ta.

MARTIN ANTONIO: Neuk eskuak garbitu-ta bideko autsak kendu gura nituke.

IXABEL: (*Leokadiri*) Guantek jantzita ditula etorri da gero.

ZERAIN: Emen eztago gero Martin Antonio, Santa Lutzi iturriko ur preskoik. Ur epela ta gazia.

IXABEL: Alako ude, esaten do medikok toki gutxitan oi dala.

JOXAKIN: Obe! (*Zeraini*) Ola sagardok tranpa gutxigo-kin egingo dituzu.

ZERAIN: Sagardoa?... Badaukat eder askoa ezpakizu ere. Esango diazu.

LEOKADI: (*Iparragirri*) Beorri sartu bedi nekatua egongo da-ta.

IPARRAGIRRE: Eskarrikasko etxeoandre. Naiko deskantsu artzen det berriz lur maite ontan iza-teaz bakarrik.

LEOKADI: Orrenbeste egunetan batetik bestera, nekatzeko bada.

IPARRAGIRRE: Ez andrea, ez, nekatuta ere pozik nago berriz Euskalerriko mendi ederrak ikusiaz. Aize epela dabil eta eskarrikasko etxeoandre, bañan utzi nazazu emen lagun zarrakin

gelditzen.

LEOKADI: Nai dun bezela. (*Guztioi*) Barrura guaz. (*Abituaz*)... (*Leokadiri*) Lujo aundik eztezute arrapatuko, ori ez, baña, zer jana badago-ta.

MARTIN ANTONIO: Guztia oituta gare.

IXABEL: (*Leokadi, Martin Antonio, ta Ixabel etxean sar-tzen diralarik*) Ezagun da bai asko ikusia dala. Ez luke iñork esango baserrikoa danik.

LEOKADI: (*Barrundik otsegiñaz*) Gualupe...ee!

ZAZPIGAREN AGERRALDIA

Zerain, Joxakin eta Iparragirre.

ZERAIN: Sagardo piska bat erango dezu Joxe Mari. Au ezta Amerikan billatzen dirue pagauta ere. Onuzkero egarrituko ziñan?

IPARRAGIRRE: Matias, eztago nere osasuna gaztetan bezelakoa, bañan erango det, erango det, sagardo bizigarria euskaldunen edaria.

JOXAKIN: Alajañetan! etzazu bertsoetan astu.

ZERAIN: Bai gizona! ta gitarra? ekarriko zenun?;... «Artista euskalduna» edo jo bear ezu.

IPARRAGIRRE: Orixe da ekarri dedan bakarra. Joan nintzan bezin arlote itzultzen naiz; eta zarragoa. Bazter asko ikusi ta igaro ditut; erri aundi ta txikiak; Prantzi ta Alemania, Suiza ta Ingalterra. Ezdakart beste ondasunik Euskalerrirengana-ko amodio aundigo bat ez ezik... (*Erdi abestuaz*) «egia añde guzietan toki onak badira, bañan biotzak dio zoaz Euskalerrira»...

Azkenik, Uruguaien artzai zelai izugarri aietan aztuta bizi izan naiz, Bitoriko lagun prestu batzuek -euskaldun on eta fuerozaleak- a Moraza leñargia! etxeruntz etortzeko alegindu diran arte....

Eta neu, guztia lagata, emazte ta alabak gaxoak! emen nator bederik Euskalerrira ezurak uztera. Zekin bizirik eztaukat bañan, Jainkoak eta euskaldun anaiak lagunduko didatela uste det.

JOXAKIN: Bai, bai. Urretxun ez daude aztuta. Gure Iparragirre ta Gernikako Arbola-ta. Jakiten dute-nean.

IPARRAGIRRE: Emezortzi urte aundi erritik aldendu nintzala! Aiek egunak! Azkeneko gerratean mutil asko garbitu zirala badakit. Pakean bizi gaitean! Emen bezin ondo iñon ezta bizitzen-da.

Makala ta zarra nago bañan alaz guztiz nere familitik ain urruti ezpanego, a, zer nolako egun ederra gaurkoa neretzat!

ZERAIN: Bai, gizona, burutik kendu egin bear dira atarramendu goibelak.

JOXAKIN: Orain beintzat emendik Zumarragara joango gera-ta an Txapartegin gere basarrin zer jana izango dezu...

ZERAIN: Eta zer erana ere bai emen. Nere sagardoak mariñelak bereala armonin ezartzen ditu or barrun.

IPARRAGIRRE: Eskarrikasko, eskermilla. *(Alaituaz)* Pozez nago. Lagun leialak zerate, Jainkoak ordaindu dezaizutela... *(Sagardotegiko parrak eta jolas otsak aditzen dira)*. Umore oneko jendea dago or. Gazteri! Euskalduna! ja, ja, ja! *(Birla aundia pirilikan antzeztokiraño sar bedi. Ta ondoren jasotzera bi edo iru arrantzale laisterka. Nai izan edo al izan ezkeru bola-tokia zerbait ikusteko eran jarri diteke)*.

ZERAIN: Bolotan dabilta. Sartu gaitezen.

IPARRAGIRRE: Onela ibiltzen giñan gu ere lurreko bentan.

JOXAKIN: Bin pario iru ezetz!

(Irurok sartzen dira.)

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Guadalupe bakarrik.

(Etxeko atadian Lape dager; kaleruntz dijoa amaren agindu batzuek egitera, otarra eskuan daramala. Une batean geldirik egoten da, adi-adi sagardotegitik datozen deadarrak entzuten. Eguna illuntzen dijoa: arratsaldearen ixilla ez dute urratzen sagardozaileen oiua eta ontzi baten orru bakanak besterik. Lupek bere orrazkera zertxo bat zuzendu, jantziak antolatu ta otarra buru gañean ipiñiaz kaleruntz abitzen da. Erritik «Ai Maritako» kanpai lodiaren otsa dator; Lupek «aitaren ziñalea» eginda iru ala lau bider eskui eskerrera begiratuko du pixkanaka bidetik barrena aienduaz).

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Leokadi ta Ixabel.

(Biak etxetik irtetzen dira).

IXABEL: *(Guadaluperengatik)* Mandatari polita daukazu. Bialdu dezakezu bai, iñongo tokita. Neskatxa polita ezpadago ba.

LEOKADI: Etxeko tratu guztia berak ibiltzen dit.

IXABEL: Kuidao! Alaba, amantzat protxu geigoko izaten da etxeko bearretako. Mutillak soldaduzkako lege berri madarikatu orrekin ez dira etxea ondatzeko besterik. Kiskitzako andra Maria! sei milla erreal!... Nondik urten bear det orrenbeste diru? Mixeri gogorra! alkanzau zaie basarritarrai! Alabak sikiera.

LEOKADI: Alabak ere bere lanak ematen ditue. Ezin kontu arturik. Nun dabiltzan jakitia ere lanbidea da!

IXABEL: Onak eta etxekoiak izan ezkerro *(Erdi adierazi naiez)* ...Sasoia etortzen zerbait e... Berak ezpa-

dute ezer, zer edo zer billatzen zaie. Zera, Gualupe artakotzakoa ta lanerako ere trebea da.

LEOKADI: Orixe bai, gure matraka! Ez da nere umea dalako, bañan langillea ta txintxo... Oraindik orrelakorik!...

IXABEL: Gure Martin Antonio, ez bestelakoa da. Orra: azkena juan zan Ameriketara, Ta zera, bere anai guztik baño len etxeratu zaigu... diruturik... Lanik egin gabe lain bizitzeko dirua omen dakar ta. Martin Antonio, gizajo! Gazteik asko aberastu da. Bakarrik gañera. Nola gero!... kuidao! Abillidade gogorra bear du kristauak. Ez du bere aitaren antzik.

LEOKADI: Mutillak ez dirudi motela, ez. Zuentzat ez da gaizki etorriko. Ezkondu dedilla-ta.

IXABEL: Bat bañan geigok eta aberatsak artuko luteke (*Abots ixiligoaz*) Zure Gualupe ez litzake txarra izango gure mutillentzat.

LEOKADI: Gure matraka?... Umea da oraindik. Gañera...

IXABEL: Mojetako joerik ez du izango beñepein. Ez det uste. Matraka ederra egiña dago neska motsa. Gure Martin Antoniokin ez litzake gaizki biziko. Beste alaba ere badezu ta Gualupe bialdu deza-

kezu orain gurekin Zumarragara... Ango bizimañak ikasi ditzala ta alkar... gus-tau o...

LEOKADI: Bañan Ixabel askarregi zoaz. Esateko ezagutu ere ez dira egiten da. Zeñek daki gañera zure semeak begiz joa beste norbait ez ote daukan?...

IXABEL: (Aopez) Leokadi, ez det jakingo ba. Iparragirre dalako Joxe Agustin konpiteron seme arlote orrek esana dakit eskontzeko asmotan datorrella. Ez nuke nai, Jainkoagatik, zera, zenbait gue ballarako neska arrokin ezkondu zedin. Gualupe bialdu zazu Zumarragara ta...

LEOKADI: Alaba etxetik ateratzeak ere min egiten dit bañan. Gure senarrak zer dion ikusiko degu gero.

IXABEL: Gizonezkoak ez due talentu aundirik uztargillentan. Or barruan sartuak izan bear dute Joxakin ta biak.

LEOKADI: Ta beste kaballero ori zein dute? Jaun printzipalen bat. Nere senarraren aixkidea, aspaldiko lagun bat edo...

IXABEL: Ori Urretxuko Joxe Austiñen semea da. Iparragirre arpixta edo esaten dite. Alper galanta.

LEOKADI: Arpegia ondo onraubana du ba. Ta bizarra

berriz... santuba diruri-ta.

IXABEL: Arpegia... ona, noski, beñere lanik ein ezto-ta. Deabrua obeto da deabrua ezpesten. Andre ta senidek Amerikan utzi ta etorri. Ezto biotz andirik ez, ezton ez. Berriz ere gordazibillak preso artzea merezi du bai, leno bezela.

LEOKADI: Bai ote?... Eztakar ekipaje aundik ez.

IXABEL: Ekipaje?... Gitarra zar bat eta soñen daukiena. Gure semek ekarri ditu iru baul, kutxa añakok. *(Sagardotegitik eresiak eta jolas algarak datoz).*

LEOKADI: Or barruan umore ona daukate. Mariñelak sartzen diranian jakiña izaten da. *(Gero ta aundiagoak otsak).*

IXABEL: Mariñelak?... Jesus! leorreko kristauai eztiel egundaño olako eskandalorik aitu e...

AMARGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Joxepa.

JOXEPA: *(Sagardotegitik irtenaz)* Nagusiak esan «nau» or... trastiakin etorri dan gitarra emateko.

LEOKADI: *(Arritu antzean)* Gitarra?... gitarra jotzen asi

bear al dute edo zer.

IXABEL: Ondo eman e. Illundu ezkerro soñue jotzen jardutea; erretiron abitzeko garaia da.

JOXEPA: Ala agindu «nau». Eztakit zer asmo izango dituzten: bertsotan or ari dira beintzat.

IXABEL: Nere gizona ezta izango ez. Ziur nago; bestela oituta daukat. Baña urretxuar orik beti pesta ipintzeko konporme.

LEOKADI: (*Neskameari*). Or barruan izango da nunbait; beste puskakin ekarria da.

JOXEPA: Eskaratzian orduban?...

LEOKADI: Bai. Ta nagusiari esaiozu aparia pronto dagola ta lenbailen jende ori bialtzen asteko.

IXABEL: Bialduko nituke neuk, bidalduko nitukenen ez. (*Neskamea etxera sartzen da*).

AMAIKAGARREN AGERRALDIA

Leokadi, Ixabel eta bi arrantzaleak.

I ARRANTZALEA: (*Sagardotegi batundik oiuka*) Joxepa!... gitar oi!... aguro!

II ARRANTZALEA: (*Au ere oiuka bañan bertagotik*)

Neska, nora juan aiz billa? (*Sagardotegiko atean agertzen dira*).

IXABEL: Berak etortzea daukate alako presa baldin badute.

LEOKADI: Errex emango dezute gitarra onbeste lagunen artian.

I ARRANTZALEA: (*Alai ta bizi*) Ola etxekoandre!... Berebiziko kobleri yayua daukagu or barruan. Jendia lerdia, ez, sagardua dariola dauka. Amerikan ere egona edo...

II ARRANTZALEA: Nungotarra ote da?

IXABEL: Nungo izango da ba... Billarrial Urrutxukoa!... An olakok obeto dare bai errespetoko jende baño...

LEOKADI: Au da ba, Iparragirre esaten diotena.

I ARRANTZALEA: Iparragirre?,... Iparra?... gaur egoa ere aldatuko dek poliki ari dek zurruta egiten.

II ARRANTZALEA: (*Bere lagunari asarre antzean*) Motel! ixilik ago ta gitarra lenbailen ekar zagun.

I ARRANTZALEA: (*Zoro-zoro eskui eskerrera abitzen da zerbaiten billa balijoa bezela*) Nun ote dago gitar ori?...

LEOKADI: Joxepa juan da billa. Bañan, zer dezute or barruan onbeste istillu ta kantaz? Pentzatzan

nun zu etziñala urruti izango.

I ARRANTZALEA: Zer nai dezu etxekoandre! Izugarrizko pesta jarri degu. Agure orrek eztañri ona izango zun gaztetan. Arrayia! Kantaz badakizki! Zure senarra ere kantari jarri du. Berak bidaldu gaitu gitarra eraman zagan.

LEOKADI: Nere gizonak?... ikusteatik sus bi emango nituke.

IXABEL: Nere tontozko berriz, an egongo da aua zabalik. Gogok ematen dit besotik elduta ekartzeko. Martin Antoniok ze esan bear don e!...

I ARRANTZALEA: *(Isabeli)* Ezer eran al du ba! Ark bat eran ordurako guk bost ustutzen ditugu-ta. Goierritarrak zurrak dira, Ala, Jainkoa! Eztue gure antzik *(Berriz eresi ta oiuaK entzuten dira)* *(Beste arrantzaleari)* Aupa! asi dituk! Au dek umoria. Itxasura jun bear degulako ezpalitz...

II ARRANTZALEA: *(Sagardotegiko ate ondotik)* Beok, aguro ez ibiltzeatik. Emen dizkiagu *(Bertatik berta barrendik datozen eleketaren otsa gero ta lodiago entzungo da)*.

IXABEL: Zer da ots ori?... Ezteiak al dira?...

LEOKADI: Ez, arrantzaliak...

IXABEL: Jende txoro!...

AMABIGARREN AGERRALDIA

*Iparragirre, Zerain, Joxakin eta ondoren
arrantzale ta beste gizonezko batzuek.*

*(Orok, iru lenengoak batez ere sutsuago ta biziago
mintzatuko dira beren aurreko agerraldietan baño.)*

ARRANTZALEAK: Bejoaindizula! Urte askotan!... Txo-
larte ederra pasa azi diguzu!... Ia berriz noiz?

IPARRAGIRRE: *(Arrantzaliai)* Naikoa egin degu ez al da
ala?...

I ARRANTZALEA: Ez, ez. Azkenekua kantatuko dezu
oraindik gitarra ta guzti. Itsasora guaz-ta. Gañe-
ra amerikanuari ongi etorria.

ARRANTZALEAK: *(Oiuka)* Ori! ori! *(Irrintzik eta aupak).*

IPARRAGIRRE: Biba mariñelak! Gazteria ta eraria doa-
rik ederrenak. Neoni ere, agure gizajo au, naiga-
beak aztuta pozik ezarri dezute, Euskalerra zora-
garria. *(Istilluak darrai).*

ZERAIN: *(Arrantzalleai)* Mutillak, beranduko zaizute.

IXABEL: *(Ozta-ozta aditzen zaiola besteen suzmurra-*

ren artean eta bere senarrari urbilduaz). Uste non or betiko gelditzen ziñala. Ixtillu pranko bada emen.

LEOKADI: *(Guztiai)* Aparia ere prestatuba dago gero.

JOXAKIN: Etzaio aztu sagardorik egiten. A zer nolako pitar polite datorrena.

IPARRAGIRRE: Etxeko andriak naikoa dala dio. Arrotzak besten esanera belarria erne izan bear du.

I ARRANTZALEA: Bai ortzak e; platerak garbitzeko lanik ez emateko.

ZERAIN: Askotxo zerate, bestela, dagonetik partiuko genuke.

ARRANTZALEAK: Eskarrikasko! Estimatusa dago! Otordu ederra egingo degu itxasuan.

II ARRANTZALEA: Ara Joxepa! Gitarra jotzeaz asetuko gera.

ARRANTZALEAK: *(Joxepa sartzerakoan poz santsuak eta algara aundiak aterako dituzte. I Arrantzaleak Joxepari gitarra eskuetatik kendu ondoren Iparragirreri eskeñiko dio ta orok abestu araziko diote).*

AMAIRUGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Joxepa ta Martin Antonio.

JOXEPA: Ez nun gitarra jango; neronek emango nion.

MARTIN ANTONIO: *(Bere amari)* Erronomia al da emen?... *(Arrantzaleai)* ¡Linda fiesta de vasquitos!

ARRANTZALEAK: Biba Indianos!... edan zagon! bere osasunera. Aberatsa izan bear dik-ta... konbittia... kanta zala Iparragirrek... *(Alkia mai gañera igoko dute ta guztien artean Iparragirre besoetan artu ta bertaraño jasoko dute, alkian eseri araziaz).*

IXABEL: O Jesus, milla bider!... Kiskitzako Andra Mariak gorde gaitzala!... Eskandalo gogorra ipiñiko dute azkenean. Ez al da aguazillik?...

LEOKADI: Ezta ezer, emakumea. Zure semeai ongi etorria egin nai diote-ta. Onezkero guk ere aitu bear ditugu toberak.

IXABEL: Ez dezala beñepein nere semeak kuarto bat gastau oiekin. *(Bata besteari ixildu araziko diote ta Iparragirre arrabitaz lagundurik abestutzen jardungo du onela):*

Ara nun diran mendi maiteak
Ara nun diran zelaiak,
Baserri eder zuri-zuriak
Errekak eta ibaiak.
Endaian nago zoraturikan
Zabal zabalik begiak
Orra España lur oberikan
Ez du Europa guztiak.

O, Euskalerra eder maitea
Ara emen zure sernea,
Bere lurrari muñ egitera
Beste gabe etorria.
Zuregatikan ernango nuke
Pozik bai nere bizia,
Beti zuretzat il arteraño
Gorputz eta arima guztia.

*(Eresi au txalo joaz eta «Bibaka» artzen
dute; txapelak ere goruntz jasotzen
dituzte ta bizitasuna geitzen dijoa. Abes-
tutzen ari zalarik oste geiago ere bildu
da. Abestutzez amaitutzekoan Iparra-
girre mai gañetik jeisten dute. Besarka-*

*tuaz etxeruntz daramate guziak. Iskamil-
laren erdian itsas-ontzien orrua
entzungo da. Dei au aditutakoan arrant-
zaleak zalapartaka itzuli abituko dira
kaiaruntz. Emen sagardotegi jaitxo bat
erantsi diteke: abesti-errikoi ta dantzal-
diaz amaiturik).*

ARRANTZALEAK: Bizargorri deika ari dek! goazemak,
motellek!
Itxoingo ziguk, bai!
Eskarrikasko Iparragirre!
Baguaz. Buelta arte!!
Agur, jaunak!!

(Bijoaz).

*(Antzeztokia iñor gabe gelditzen da.
Lengo karabineroa, azaldu bedi, zai
dagon txabolatxotik irten da. Geldiro
dator. Eskui-eskerrera begiratuko du.
Azkenik arrantzaleak eskutatu diran
aldea begiratuaz, arpegian mukerkeriz
betetako ximiko ta keñua azaltzen zaiola
esan beza):*

iSAGARDUOS!

OIALA JEISTEN DIJOALA

BIGAREN EKITALDIA

(Antzektokia bitara antolatuta: puska batean Txapartegi baserriko sukaldea; bestean atalurreko bidea, soro ta alorrak. Urrutira baso-mendiak. Sukalde gela oi dan tresnaz eta bear dan eraz ornituta. Zertzelada oriek antzezkizun zuzendariari dagozkio. Beñe-pein, mai aundi bat eta alkiak ez dezatela utsegin; eta eltxekariak laratzean ere ez).

LENBIZIKO AGERRALDIA

Joxakin, Ixabel, Martin Antonio,
Guadalupe, Iparragirre eta auzoko nekazari,
gizon-emakumezkoak. Ta Lutxi,
(Txapartegiko mirabe zarra)

*(Orok, agidanean, une artantxe bidetik ateaurrera elduak dira. Taldea antzektokian era ontan agertuko da: lenen, aita-
seme ta gizonezko nekazariak; Ixabel,
Lutxi (mirabe zarra) ta beste atsoak*

gero; azkenik Guadalupe ta Iparragirre).
(Zakurren zaunkak entzungo dira).

MARTIN ANTONIO: Au ezta askoik aldau. Alaxe zegon Amerika jun nintzenen ere.

JOXAKIN: Ez, orain pixka bat zarrago. Antolau biarra bauka baño... nagusiari antolatzeko eskatzen badiogu errenta altxako digu-ta.

I NEKAZARIA: Bai. Aguro gero!

II NEKAZARIA: Ori esan! Bai...

MARTIN ANTONIO: Erosi ere egingo genioke, berak saldu gura balu.

I NEKAZARIA: Aldunak egiten du...

II NEKAZARIA: Bejoaindizula!... (*Joxakini*) Eztezu lasatasun makala artuko. Baserrin jabe izatea!...

JOXAKIN: Ondo gurek dira guztik ere bai. Gure aitonen aitonak emen bizi izanak omen dira-ta. Geok ezpagenitun obetu lurrak, ez luke emendik ezer asko aterako ugazaba printzipalak. Malkarra besterik ezta-ta.

I NEKAZARIA: Mixeria!

II NEKAZARIA: Konporme! (*Erausian darraite*) (*Beste taldean*).

IXABEL: Guztira ederki ibilli gera bidajen.

I ATSOA: Trenen beñepin ezta asko nekatzen.

IXABEL: Alare etxera biurtzeko pozik.

II ATSOA: Nai litzake, olako semea ekarrita aberastuta
(*Guztiok Martin Antoniori begiratzten diote*) Mutil
bikaña dago. Zeñek esan basarrikoa danik?

LUTXI: Bergarako kaballero prinzipaletakoa dirudi.
Ondo gobernau-ta ipintzen degunean ikusteko
egongo da. Norbaitzuk begiratuko diote
gogotik.

ATSOAK: Ja! ja! ja! au Lutxi au!

IXABEL: (*Kopet illun Lutxiri*) Ixilik zare, ixilik. Obe
zenun ni kanpon ibilli naizen bitarten ardatzen
egin bazenun ta gaur goizen labe-sua piztu,
zera...

I ATSOA: Indianok basarrin etsiko ote du? Baezpa otor-
du on eta luzek maniatu bear.

IXABEL: Gure Martin Antonio jan gutxikoa da. Ogia ere
azalutsa jaten du. Ta sagarrak eta olakok, aza-
lik bage. Piña dago. (*Eleketan diardute*).

IPARRAGIRRE: (*Guadaluperi*) Nekatu naiz ederki one-
raño etortzen. Oraintxe nere indarrak juan dira.
(*Nekez asnasa artuaz*) Beñere etzitzaidan bide
au ain luzea iduritu.

GUADALUPE: Au Ondarrabiatik Guadaluperaño baña

urrutigo dago. Ta ezta itxasorik ikusten. Auxen da itxusia. Txakurrak koskik egiten al du?...

IPARRAGIRRE: Zuri ez. Ni ez natzaio baezpa bertaratuko. Animalik, eskalea erraz ezagutu oi dute. Bai, ontara iritxi da artista euskalduna... (*Geigikeriaz*).

Or pian, nere sorterrian aztu naute; familikok il ziran, edo... il nitun. (*Goibelduaz*) Denbora batean txaloka ibilli ninduten aiskideak, gerratian fueroakin batera, erori ziran (*Bakarrizketan antzean*) o! Moraza goitarra ta bitoriar pres-tuak, zuek eta etxe ontako nagusiak bakarrik lagundu nazute.

Obe nun Amerikan gelditu banintz. Ez nun gaurko eskerbeltza bilduko. Nere alaba gaxoak! (*Mal-koa dariola*)

GUADALUPE: (*Errukituta*) Ba alditu alabak?...

IPARRAGIRRE: (*Oldozpen txarrak urrutiratu naiean*)
Bai, an, Amerikan gelditu dira.

GUADALUPE: Ni ere nere gogoz ez nintzan Ondarrabitik irtengo. Amak bialdu nau-ta.

IPARRAGIRRE: Gaztea zera ta amaren esana egin da etzera galtzen aterako.

GUADALUPE: Berorri bezelako dirudunak bagiña bai.

IPARRAGIRRE: Tristea! ez al dakizu aberatsak ezagutzen? Ori da mundu ontan aurrena ikasten dana. Zakurrak berak ere igarri dit-eta.

MARTIN ANTONIO: (*Guztioi*) Tira! sartuko zerate zerbait artzea. Gure amak zer edo zer izango ote du!

NEKAZARIAK: Eskarrikasko! Estimatusa dago!

ATSOAK: Urrena etorriko gera...

IXABEL: Bai. Gazta ta ogia, ardo puska bat eta txokolatea etxen ba dira beñepein. Neuk iganden zelibratzeko asmoa artua neukan baña...

NEKAZARIAK: Obe izango da.

ATSOAK: Bai, bai.

JOXAKIN: Ordun soñu ta guzti pesta ederra ipiñiko degu.

MARTIN ANTONIO: (*Iparragirrengatik*) Emen degu soñu jotzallea.

IPARRAGIRRE: Soñu eskaxa da nerea, dantzako.

I ATSOA: Ajola zaie neskamutillei, soñue izan ezkerro. (*Guadaluperi*) Ez al da ala gazte?...

GUADALUPE: Ni ez naiz dantzatzen.

ATSOAK: (*Arrituta*) A...a...ra!

JOXAKIN: Ballara ontan ederki dantzatzen diranak badira. Belokiko Mañaxi-ta.

IXABEL: Orain dantza kontue laga zagun. Lutxi, etxea nola dagon errepau biar degu.

II ATSOA: Ederki egiña. Gure ala goaz.

JOXAKIN: Auxen da etxekoandren presa. Bagoaz, bagoaz danok ere. (*Irritsu*) Zure txanponak lengo lekun egongo dire bai.

IXABEL: Atean geldin egonda, ezta ezer aurreatzen. Zuek gelditu zaizte nai badezue. Or konpon (*Lutxikin sartzen da*).

I NEKAZARIA: Ori esan ori!... Bueno! urrenarte ba!

JOXAKIN: Azienda semeari erakutsiko diot. Seme (*Martin Antonio Guadalupekin izketan ariko da*) Tira! ikullu ederra daukagu.

MARTIN ANTONIO: Amerikan ere azienda obeto ikusi degu.

JOXAKIN: Etzien gurek bezin gurik izango. Larre bei edo alakok, seguru. Ez gurek bezela gobernauk.

MARTIN ANTONIO: Ikusiko ditugu ba, aita.

LUTXI: (*Atean agertuaz*) Esnetan «irabaziko» dienak gutxi dira probintzi osoan. Oraintxe jetxi ditut. Ikustekok dira.

IXABEL: (*Barrendik otsegiñaz*) Lutxi ordea! Zuri bai iñork iraten eztizula berriketan. (*Lutxi berriz sartzen da*).

JOXAKIN: Bagoazke barrena bestela eingo digu guri ere.

ATSOAK: Bai, bai, zoazte. Ario.

GUZTIOK: Ario... Urrenarte... Bai ondo izan!...

JOXAKIN: Tira Joxe Mari, sartu gaitean. Zuek ere bai gazteak.

IPARRAGIRRE: Sartu gaitean ba, aspaldiko «Txapartegin» (*Biok sartzen dira*).

MARTIN ANTONIO: Bai, goazen. (*Martin Antoniok atean bertan, sartzeraoan, sakeletik erroskilla batzuek aterako ditu Guadaluperi emanaz*) Ezta gauza aundik baña, erroskill ok artuko dizkidatu.

GUADALUPE: Eskarrikasko! (*Auek ere etxeratzen dira*).

BIGARREN AGERRALDIA

Bi Gizaseme ta iru Emakumezkoak.

(Etxeruntz abiturik).

I NEKAZARIA: Lanerako giro ona dago-ta alpapa puska

bat ebaki bear det ganauntzat.

II NEKAZARIA: Ba geuk beti lanean aditu bear eta beti probe... Nekazaria baña errukarrigoik ba al da ba... Obe genun Amerika jun bagiña.

I NEKAZARIA: Joxakini seme oso aberatza etorri ote zaion edo.

II NEKAZARIA: Soñua ala da beintzat.

I NEKAZARIA: Baserria erosiko ote dun... Seme pizkorra atera zaio.

II NEKAZARIA: Gogon daukat Amerika jun zanen. Oñez aitag berak Beasaña eraman zon. Mutilla zan, arten, eskolik baeko... Orain berriz zaldi gañen igo da etxeraño alajaña, ta or bealdian jendekin erderaz parra-parra ai zan.... (*Gizonezkoak bijoaz*).

IRUGARREN AGERRALDIA

Iru Emakumezkoak.

I ATSOA: Geu ere zeregiñeta bagoazke.

II ATSOA: Bai, ta eguna moztutzen ezpada ari ba... Eskerrak artoa biltzeko giro aproposa dagola.

III ATSOA: Zuenen noiz dezute arto-txuriketa?

I ATSOA: Aste ontan ez beñepein. Iganden berriz «Telerin» atsolarreta degu-ta. Zer esana izango da an. Gero ezpaita Ixabel jungo ta. Bakizute asarretu zirala.

III ATSOA: Orain «Telerikoak» baño geigo dirala irudituko zaie gañera.

I ATSOA: Erraña ere, Martin Antoniontzat, etxen sartu bearko du.

III ATSOA: Zer zala uzte dezu berakin ekarri duten neskatxa?...

I ATSOA: Ori esan Prantxiska!...

II ATSOA: «Iparragirren» alabea dala ere aitu det.

III ATSOA: Amaika izango ditu bazterretan!

I ATSOA: Baleike bai. Antza ere badu bai. Orra! «Txapartegiko» etxekoandre gaztea. Neskatxa balientea; goierriko piñegie ere...

III ATSOA: Iparragirren alabea bada eztu gurako Ixabelek. Zerbait duna etxeatuko du bai... (*Bijoaz*).

LAUGARREN AGERRALDIA

Lutxi ta Ixabel.

(Sukaldean).

LUTXI: Azukre ere aitu zaigu-ta billa jon bearko degu.

IXABEL: Jesus ba! etxe ontan aña azukre bear dan parajerik. Basarri gozozalea auxe...

LUTXI: Esnea baukagu-ta. Gizajoak amaika gose pasauko ziton Amerikan dirue egiteko.

IXABEL: Ala uste det! Gure mutilla egon dan lekun zer jana etzaio paltau. Okelia emen baño maizago okitu arte. Ala dio gure Martin Antoniok noiz nai azienda il da zera, erreta jate omen zuen.

LUTXI: Eztire emengo lakoak izango.

IXABEL: Gurik emen dira oso, ta millaka; ala dio gure Martin Antoniok. Neuk ere Prantziko Burgosen ikusia daukat bai. Ango zerkausia, ene! Gauzia gurdika; nola aza, tipula, azanaioa.

LUTXI: Baratza jeneroa izan bearko bai, bañan emengo esne ta baskantzak. Guri asko ipiñiko diogu lepozamarra Martin Antonioi. Neuk gazitutako urdai azpikoa ezpestelakoa urten zan. Ea aitu da au ere.

IXABEL: Noski, emen aste gorrin ere eztaiak dirala ba diruri-ta. Ola bagoaz txerria laister ilko bearko

degu. Ta etxekok bakarrik mantenu bear bagi-
ñuzke gaitz erdi. Iparragirreri ere Billarrialkok
txalo ta pesta-asko egin dizkate bañan ezer
gutxi eman. Azkenen gere etxera. Martin Anto-
niongatik ezpalitz....

LUTXI: Pantasioso galanta. Leno ere Madrillen-ta ibillia
zan ori. Jun deilla orain ere ara jende ingañatze-
ra... Emontre! ta...

IXABEL: Diruk gere semek aisa irabazi dituela irudi-
tzen zaie batzuen-batzuei.

LUTXI: Atrebentziakin bada ere berakin etorri dan nes-
katxa dala-ta, ze esana badabil ballara guz-
tian...

IXABEL: Orratakoxe daukagu geure Guadalupe! Ezta-
kit nondik atera duten olako ixtorie.

LUTXI: Martin Antonio ezkongai edo dagola badakie-ta
or jungo dire auzoko neskatxa danak iturrira
sulla artuta gere galaia ikusteatik.

IXABEL: Eztue nere seme arrapauko ba. Alper-alperrik
dabiltz. Txapartegiko etxeko-andre berrie auke-
ratuta dago. Etzazula oraindik iñon esan baña
Martin Antonin andregaeie Gualupe da.

LUTXI: Banengon ba neu; eztiot iñortxori esan baña,
zea... pensau non olako zerbait zala. Ta nolakoa

bera! andre ederra; bai, ederragoa arrosa baño. Ta ixille ta txukune. Gere alden piñe ere bai. Gero bealdian emakumezko lan gutxi egiten oiturik dare-ta.

IXABEL: Zerekin bizia ta geio ere izango ute-ta. Ezteu etxera mirabetzat ekarri. Ez enetxoa!

LUTXI: Bai gusto emango dio Martin Antoniok, bai. Biok gazteak gañera. Martin Antonio, neuk esatenon bai aparta urten bear zola. Ori gizona! otsa andia ipiñi du ballaran. Katetik ere ontzako zintzilik damazki.

IXABEL: Ori ezta ezer paperetan ditun interesen alden. Ajola aundiko balioa. Bañan naikoa degu-ta. Lutxi, zoaz len-bailen ur billa ta etzaiozula Gualupei alperrikako berbarik egin. Gajoa apur bat tristantziak artua dago ta. Emengo bizimañara akostumbrau arte.

LUTXI: (*Sulla artata dijoalarik*) Bai, amodioa sartua eukiko du korputzean-da...

IXABEL: (*Asarre antzean*) Tira! aguro zoaz!... (*Joan da gero*) Ori ere ba al dakin emontre neskazarra! ezpesten!...

BOSGARREN AGERRALDIA

Ixabel eta Guadalupe.

(Guadalupe ixilik ta geldiro sartzen da; itun).

IXABEL: *(Guadalupe barruan dala oarturik)* Emen al ziñan Gualupe? Eseri zaite eseri. Ikusiko dezu aparie nola prestatzen dotan. Arroza esnekin e ipiñiko det. Gustatzen zazu?...

GUADALUPE: Pixkat. Ondarrabian gutxitan jaten gendun.

IXABEL: Emen esnea aparta degu. Arroza azukrekin nastua ez tie baño gozogo izaten da. Tira, gero jango dezu gura ala. Emen zure etxen bezela egotia nai degu. Edo obeki: txorie gari pillan bezela: zer nai, ura. Ondarrabin senide asko zerate ta dagonetik guztik jan bear; ala ere zeren amak naiko lan izango degu. Emen berriz... bakarra zaitugu-ta... Zure lekuan zenbait auzoko neskatxa balere... Ain poza!...

GUADALUPE: Ni eztet esan gaizki nagonik... *(Ixillunea)*
Emen ezin etsiko detela besterik ez.

IXABEL: «Puerba» egin zazu ba. Gualupe, zu bezelako

neskatxa pormalak zer edo zer pensau bear du. Gurasok ona bialdu bazaitue ere zerbaitengatik izango dala. Geroai ere beitu bear zaio.

GUADALUPE: Bai izeba. Ni amak esan ziranian konpor-me etorri nitzan; Aste-santu arte ta orduan etxera itzuliko nitzala bañan ain urruti dago oraindik, eguarrik eztira-ta...

Ikusiko balitu beorrek Ondarrabiako prozeziuak. Ura poza berriz irixten diranean!

IXABEL: Ba, Zumarragako prozezioa ere ezta txantxetakoe. Billarrealgo bi ala bada ta errespetokoa! kandelak lodin buskantzak añakok....

GUADALUPE: Ba, Ondarrabian arrauna añakuak...

IXABEL: Musikia ere jotzen juten da.

GUADALUPE: Gure errian musika ta karabineruak.

IXABEL: Sermolaria berriz prailerik pizkorrena; bizarra Iparragirrek baño ere aundigoa.

GUADALUPE: Aundiagoa du frai Pedrok, Ondarrabi-kuak. Arrekin konpesatzen naiz.

IXABEL: Ongi dago. Bitarten Gualupe, Martin Antoniok ezer aitatzen badizu ontzat ar zaiozu-ta etzera gaizki biziko.

GUADALUPE: Arestian ere erroskillak eman dizkit.

IXABEL: Tuntuna! ez al dakizu Martin Antonio ezkon-

gai dagola ta etxe barruan aukera izan da kanpora billa jungo eztala? (*Guadalupe zearo gorritu ta itzik gabe gelditzen da*) ...zutzaz gustaua dago.

GUADALUPE: (*Larrituta itzak ozta-ozta mintzatzen ditularik*) Nitzat?... ez!... Itza... emana nago...

IXABEL: Orrek eztu ezer esan gura. Eskribauik, beñepin etzen duen aurren izango-ta. Neska-mutilen gauziak; astuko zazu...

GUADALUPE: (*Sendo*) Ez!... ez... (*Sotinka*) Etxea jun nai det.

IXABEL: Ezbeñepein negarrik egin. Tira, paken utziko zaitugu. (*Ateruntz joanez*) Gajo ori amaren ondon oituta zare ta aixa larritzen zera. Ikasiko dezu bizimaña zuk ere. Sukalden zare Lutxi etorri arte ta kaso egiozu suari. (*Bijoa naigabetua*).

SEIGARREN AGERRALDIA

Iparragirre ta Guadalupe.

IPARRAGIRRE: Negarrez al zare Guadalupe? Ez al zare onik?...

GUADALUPE: (*Naigabea eskutatu naian*) Ez, ez... malko batzuk; ezergatik negarra egiten jartzen naiz. Ez bai naiz beñere etxetik irten-da gogoratu egiten zait.

IPARRAGIRRE: Ori besteik ezpada lasatu zaite, maitea, ezta ezer. Zu beñere etxetik irten etzera ta neu berriz ez naiz iñon gelditu al izan. A! nire ama zanai kaso egin izan banio ez nuke orain nire burua ain errukarri ikusiko.

GUADALUPE: Ni ere obeitzeatik etorri naiz, bestela, naiago det Ondarrabian bizitu.

IPARRAGIRRE: Emen osabanen ongi artu zaitute ta gañera andre Ixabelek (*Irritsu*) eztizu erritan egingo zere amak bezela.

GUADALUPE: Okerrago oraindik....

IPARRAGIRRE: Ez emakumea; ikusiko laister Santa Ixabelgo festak dira-ta dantzan zenbat egin bearko dezun.

GUADALUPE: Ez eztet egingo.

IPARRAGIRRE: Ai! ai! ai!! Agian Ondarrabin mariñelen bat «aiskide» laga al dezu? (*Guadalupek lotsa-lotsa eginda begiak jesten ditu*)... Ez lotsatu. Ez daukazu nigatik beldurtu bearrik. Zu bezelako alabea neuk ere badet ta ura da aitan kutuna...

(*Guadalupek ixilik darrai*). Maitea urruti dauka-
zulako ez goibeldu; eztezu galduko.

GUADALUPE: (*Bat-batean kemenez*) Bai!; onela ekarri
naute Martin Antoniokin ezkondu arazteatik.

IPARRAGIRRE: (*Arriturik*) Zu?... Martin Antoniokin.
Bañan...

GUADALUPE: Izebak esan dit ta...

IPARRAGIRRE: Eztakit ezer; ez naiz ezer etxe ontan.
Neuk, zer nai dezu esatea, Martin Antonioi leno-
tik eskerrak millaka zor banizkion orain... (*Alde
guzitara begiratuaz*) bere etxean gaude, bere
etxean artu naun ezkerro egundaño nagusi gutxi
ezautu izan arren orain, bere mendean nago;
laguna baño geigo izan da neretzat, eziñake
esku txarretan jausiko. Ondo pentsa zazu.

GUADALUPE: Pentsatuba daukat. Aspaldidanik itza
emana nago. (*Sotin artean*) Ezin niteke emen
gelditu. Bai beorri ere nere kontra dabil, eta
guztia zekin. Gaur bertan... etxera... Igesi egin-
go det... Onra galtzen badet ere....

IPARRAGIRRE: (*Besotik eutsiaz*) Ezta ori ez Guadalupe.
Neuk aitaturkoa zure borondatea ala izan ezkerro
egitekotan zan. Bañan barrenak bestela agin-
tzen badizu ez zaitu iñork beartuko. Nere alaba-

ri ere au bera esango nioke. Ta badakizu zure alde eukiko nazula.

GUADALUPE: Etxera jun nai det. Ezin egon naiz eman. Zer esan biar diot nik izebari?...

IPARRAGIRRE: Lasatu zazu biotz ori. Itxoin zazu. Neu emen nago zure alde itza egiteko ta guztia antolatuko degu. Baita etxe ontakoakin aserratuko banaiz ere. Baita kalen lagatzen banaute eskean asteko zorin.

GUADALUPE: Nai badue ta nai ezpadue ere Bixentekin bakarrik esposatuko naiz ta etxean aserratzen bazaizkigu Bixente ta biok Amerika berdin jungo gera.

IPARRAGIRRE: Etzazula olakorik esan Guadalupe. Emendik urten bear badezu neuk lagundu dizut aman maleraño. Amerika?... Andik nator eta nola? Azkenik an laga ditut nere aragizko pus-kak, emazte alaba tristeak; berekoia, nere ezur-rak emen uzteagatik.

GUADALUPE: Ondarrabira itzuli nai det.

IPARRAGIRRE: Orain pakean zaude ta gero zer dato-rreren ikusiko degu.

GUADALUPE: Bai bañan, beorrek faborez izebari esan-go al dio?...

IPARRAGIRRE: Dana! A! Lutxi ere iturritik badator.

GUADALUPE: Aizia artzera nua kanpora...

IPARRAGIRRE: Bista ederrak dituzu or; Irimo mendita...

GUADALUPE: Itxasua ere bai?...

IPARRAGIRRE: Itxasoa bai, baña mariñelik ez... (*Guadalupe bijoa ta Iparragirrek lagundu bezaio atearaño*).

ZAZPIGAREN AGERRALDIA

Iparragirre ta Lutxi.

LUTXI: (*Sulla buru gañean dula sarturik*) Jainkoak dizula atsaldeon!

IPARRAGIRRE: Bai ta zuri ere aspaldiko Lutxi. Iturritik e?... Guadalupe zai egon zazu. Asti asko pasa dezu buelta egiten.

LUTXI: Geio pasatu dezu zeorrek zere bueltia egiten (*Sulla maigañean usten du*) Alajaña!

IPARRAGIRRE: Zer goratzen al zera azkeneko ikusi giñanen?

LUTXI: (*Seta txarrez*) Zibillak preso eraman zinduten

artan?...

IPARRAGIRRE: (*Luzaroan Lutxiri begiratu ondoren*)

Orain, eztieta ez zibillai ta ez emakumezkoai beldurrik sartzen. Zarra nago.

LUTXI: Zure edadea ondo dakit. Umetandik ezautu ziñuan ta orduko galai ziñan ta zertzen... azia.

IPARRAGIRRE: Naigo nuke orain zu bezela banengo.

LUTXI: Ni bezela zer?...

IPARRAGIRRE: Alegia... zera... bate kezki bage. Txapartegin pakean, beti leku batean.

LUTXI: Bai, emakumezkoak beti leku batean gare. Esperantzeta egon giñan, bañan ez gaitu iñork emendik atera...

IPARRAGIRRE: Esaera al da: «ondo dagona ez bedi maitu». Zu betiko Lutxi oraindik andre polita...

LUTXI: (*Latz*) Ta zu betiko Joxemari, itz leun eta palsoa... (*Gibela ematen dio*).

IPARRAGIRRE: (*Pakea egin naiean*) Zukin gaztetan pikaro zamarra izan banintzan barkatu nazazu... Orduko utsegiteak ondo ordaindu ditut. Txarkeri aundia egin nizun bañan bai nere buruari ere. Geroztik naigabeak geio zuritu didate bizarra urteak baño... (*Ixillunea*)... Ezkondu nintzan eta iru alaba ditut.

LUTXI: (*Oroimen onek barruan daukan gorroto guztia piztutzen diolarik*) Ilko ote zera berriro ikusi gabe. A ze nolako aite!... Lenago ere aite izan ziñan neu aurrakin erraz azko laga ta eskapa egiñik. Zibillen artean ostera eramango ote zaituzte!...

IPARRAGIRRE: (*Bare*) Zaude ixilik, Lutxi. Kalterik egin banintzun ez nion nere buruari txikigoa egin. Biok izan giñan errudunak. Aztu zazu, ainbeste urte pasa dira geroztik...

LUTXI: Gizonezkoak erraz aztutzen dituzte. Neuk eztaukat aztuta. Alde egintzazu etxe ontatik likiskeri nabarmena. Zein zeran jakingo dute nausiek ta Martin Antoniok. Ta bearbada zu artu zaitun andrek ere.

IPARRAGIRRE: (*Sututa*) Deabrua al daukazu korputzean? Emen nago neu zuri erantzuteko. Ta laga itzazu pakean nere emazte ta familia, besterik etzat mundun gelditzen-da.

LUTXI: Neu bakarra edo gelditu nintzan... Orain ere mixerin familia laga ta etorriko ziñan... Emendik jun bearko dezu bada...

IPARRAGIRRE: Ixilik zare sorgiña!... Ezin eraman petral alena!...

LUTXI: Zu bai ajolakabe alperra!... (*Bijoa igesi*).

IPARRAGIRRE: (*Jo naiean bezela*) Alde egin zazu barren gaiztoko emakume ziztriña barkatzen eztakizuna!!

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

*Iparragirre, Joxakin,
Ixabel eta Martin Antonio.*

(*Auek irurak sartzen*) Ola! emen gera; Kaxo!...

IXABEL: Non dire besteak?... Guadalupe-ta Lutxi....

IPARRAGIRRE: Or nunbait izan bear dute biak.

JOXAKIN: Bakarrik utzi zaitute konpañeo.

MARTIN ANTONIO: Ola, konpadrito!

IXABEL: Au lanbidea! Ta emen sukalden iñor ez. Sikiera alabea banu. Neskameakin eztao gauza onik. (*Laratzera joanik eltzeak astinduko ditu*) Gure aparie! Seme!

JOXAKIN: Semek erraña egingo du bai. Gauziak denbora bear do eltzeko. Gaia etxeatu degu-ta...

MARTIN ANTONIO: Kozinero txarra laga ezu apari ona prestatzeko ama. «Asao», errea balitz.

IPARRAGIRRE: Guztitatiek egiten oitua nago. An Amerikan gizonezkoak sukalde kontuan ibiltzen dira (*Martin Antoniori*) Ez al da ala Martin Antonio, «Baskito»...

MARTIN ANTONIO: Y, como no, che!

IXABEL: Onek «no» dio; noski. An ere gobernu ona izateko etxekoandre edo emakumea beintzat bearko dute bai.

MARTIN ANTONIO: Neu, denboria luzen, gonik ikusi barik egona naiz beñepein. Ezta abadienak ere. Ura basamortu aundia da apaizak eta andreak bizi al izateko.

IXABEL: Ene Jesus milla bider!! Mezik entzun barik egontzea seme? Elizik ez al da? A zer nolako kristauak!

MARTIN ANTONIO: Bai an kristauak ere badira ziurareta olakotan. Kanpon jai eguna noiz izaten zanba al genekigun ba!

IPARRAGIRRE: Emen geienak eztakie an jendea nola bizi dan, Amerika ere asko aldau da. An ere bizi-modua zalla dago. Batzuen batzuk aberastuzen dira baño gutxi. Debalde etortzeko ontzia balego euskaldunez beteko litzake.

JOXAKIN: Baserriko mutillak joera ara artua auke ba.

Orain ere Etxebarrendik bi ote dijoazen otsa omen da.

IPARRAGIRRE: Etxetik ateratzeko gogoia baldin badute il edo bizi Habanara joatea obe.

IXABEL: (*Asarre ta bizi*) Habanara! ez, ez. Naiko gerra izan genun emen ere. Tira! eseri zaite seme. Andrea artuta pakean bizi bear dezu emen pamilin. Eztitugu semek alperrik asten, eztitugunez.

IPARRAGIRRE: Martin Antoniok ondo daki bai egin bear duna. Eztu iñor bear mundun ibiltzeko.

MARTIN ANTONIO: Nere amak dionez andre bat.

JOXAKIN: Andrea artzen badek eztek asko korrituko. Andrea buztarri astuna dek arin ibiltzeko.

IXABEL: Ez, beti ijitok bezela ibilliko da, zertzen... zera... auntza jun da etorri. Gizonezkoak bein erare bat ezkerro ezkondu edo praile (*Parra dagite*) (*Martin Antoniori*) Zutzako moduko nobie etxen daukagu: Guadalupe.

JOXAKIN: Ze demontre! Ondarrabiko lengusu ta biok aguro prestatu dezue eskontza. (*Iparragirreri*) Atso orik eztue denboria galdu.

IXABEL: Atsoa?... Zeu baño gazteago naiz.

JOXAKIN: Atzo etzendutela denboria galdu. Orik bela-

rrik!... (*Semeari*) Seme, nai badek eta nai ezpadek ezkondu egin bearkok.

MARTIN ANTONIO: Gero ere ortako beta izango det.

JOXAKIN: Baita zera ere, zai egongo zaik...

IXABEL: Eztet gura mutil zarrik etxen. Kontentu egon zeizke. Guadalupe bejelako neskatxik gutxi; aren zanko ta gorputza. Aparta! Ona! Mutil eztaukek mauke txarra! Zenbait etxe oneko mutillek artuko luteke. Ez al da ala Joxe Mai?

IPARRAGIRRE: Galdera egin didazun ezker, atrebentziakin... aurrerago gauzak eraman baño len, nunbait ezta kizu eta, Guadalupe, bai, Guadalupe ezkongai izan arren, Ondarrabiko mariñela bati itzema da dagoa...

IXABEL: (*Irripar gaiztoaz*) Zeuk baño obeki dakigu Guadalupen berri, bestela ez gendun geokin bilduko.

MARTIN ANTONIO: Ezkontzeko itzik eztiogu alkarri aitatu beintzat.

IPARRAGIRRE: Neuk, oraintsu Guadalupe berak negar bizitan esandakoa besterik ezta kit.

JOXAKIN: Ederra da komerie. Ta neskatxa gogon kontra ekarri dezue, e?...

IXABEL: Gurasok ondona dakite alabeai komeni zaio-

na. Bi amak konpondu gera ta zerbaitegatik gera amak.

JOXAKIN: Neuk ere, gurasoa ote naizen-da eztakit, eztigute olako nobedaderik aitatu.

IXABEL: Neu ere zeukin esposau nintzanen ezer gutxi nekin nolako senarra artzen nun.

JOXAKIN: Etzendun baezpa ezezkoa esan.

IXABEL: Etxealdeko ziñalako.

MARTIN ANTONIO: Ixo! Ixo! (*Iparragirreri*) Ara non andregairik bage geldiu naizen.

IPARRAGIRRE: Beste bat sortuko da...

IXABEL: Ez, ez, (*Urduri zearo amorratuta ta sukaldean batetik bestera jardunean*) Gizonezkoak beti arrazoia; geuk lana buru belarri. Emen sesioa ipiñita jango degu... Orratx!... A! Lutxi, ori ezta-
kit non eskutau dan... Ta emen kanpokok agintzen dute!... (*Iparragirrerengatik*) Zure alabakin egingo diogu eskontza. Ortako gare!... (*Kiñu lotsagabe bat egiñik irtengo da sukaldetik*).

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Iparragirre, Joxakin eta Martin Antonio.

IPARRAGIRRE: (*Ixillunea*) Erriratu nintzanetik makiña-bat naigabe jaso ditut, irañ au ordea etzidan iñork arpegira bota. Berriz ere alde...

JOXAKIN: Aundigoak aditzen oituta nauka. Egun batzuk beñepein guekin egon zaite-ta...

IPARRAGIRRE: Eskarrikasko.

JOXAKIN: Gere etxeoandre?... Angiozarkoa da ta ango jendek mingaña zorrotza dute. Bai milla demonio!

MARTIN ANTONIO: Aita? Etxe zarra dagola iruitu zat.

JOXAKIN: Zarra? Geuk baño geigo iraungo ik oraindik bai.

MARTIN ANTONIO: Ezpadezu botatzen berrie egiteko bai.

JOXAKIN: (*Iparragirreri*) Gure indiano au oso diruturik edo. Oso goitik bistatzen etorri ote zaigun. Arranepola! emen gastau bañan len...

IPARRAGIRRE: Ederki dago. Bere jaiotetxea edertu gura du. Guzik gere etxea bagenu beartsu ta arlote (*Bere buruagatik*) garenen nun etzana izateko... Joxakin, a, ze nolako egun onak datozkitzun. Landare berria Txapartegin jaioko da-ta orduan, besotan atxurraren ordeaz illobatxuak

ibilliko dituzu.

JOXAKIN: Ori (*Semeagatik*) onoko... oni galdeu...

MARTIN ANTONIO: Ez, lenbizi amari...

IPARRAGIRRE: Basarrian jabe egingo zerate.

JOXAKIN: Basarria Markesana da-ta naiko lan ark saldu nai izatea.

MARTIN ANTONIO: Eskatzen duna emango zaio-ta.

JOXAKIN: Ortarako kalen etxe arkituko genuke. San Martiñak urrian dira zerbait egiñenean.

Zeñek esan, Joxe Mari, nere semea ola etorriko zanik? Errenta pagatzeko diña ortxe nunbait ixten giñan-da. Gere burua «Txapartegiko» jaun eta jabe ikusi bear ote degu ba?

MARTIN ANTONIO: Eta nagusi ta ugazaba nere diruk balio badute.

IPARRAGIRRE: Ori da seme prestu ta leiala izatea.

JOXAKIN: Bai. Ta au da ustekaben semea aberastuta etortzea. Iñazio, seme zarra, etxealdeko zana, il zanen, Bikariongana jo nun, oni, Martin Anteriori karta bat jarri zezaion. Onena au izango zala-ta Amerikatik etorri zedilla; Naiz probe etorri konporme nintzan, pijo ta leneko gogokin ezkeru. Ta ara non...

MARTIN ANTONIO: Bai, karta artu non da onek (*Iparra-*

girrerengatik) letu zienen, zera, Txapartegitik ots egiten ziela anai difunto iltzalako, ba, lengo nausiarri azienda ta lur guztiak saldu nizkan eta emen dauzkat (*Nekez kolkotik txorta bat diru-paperak ateriaz*) diru paperak Txapartegi erosteko. Biar bertan nagusi printzilpalengana junda diruk nekin baño ziurrago egongo dira.

JOXAKIN: (*Pozik diruari begira*) Eztegu beste orrenbeste gure urtetan ikusi. Ezta komeni batean orrenbeste diru erakustea. Aurrena beintzat, basarria salduko ote luken aitatuko diogu. Gizon korrientea da On Martin Aminixtraorea, baño bere moduko batekin, (*Iparragirreri*) zukin edo, eztakit bada obeto jungo ez ote giñaken.

IPARRAGIRRE: Ortan neuk baño geio dakizute. Zer balio duten etxek astu zat.

JOXAKIN: Basarri probeta da au dirurik asko pagatzeko. Lur txarrak; Bi soro besterik ez, esateko; beste gañekok malkarrak. Mendia, orixe dezente.

MARTIN ANTONIO: Azienda ugari ipiñi bear; bei ta iri-ta...

JOXAKIN: Ta gobernua? Oñe! Non sortu bazka? belar mixerie datorrenen. Almacenak gero irabazi guztik jaten ditu.

MARTIN ANTONIO: Mendia obeto dago ingurun azien-
da larrera botatzeko.

IPARRAGIRRE: Ta nolako mendiak?; ederrak, ezpeste-
lakoak.

JOXAKIN: Mendik... satorra besterik eztabil barrutitan
eta izugarrizko kalteak egiten dizkigute. Zeok
ikusiko dezute. Goazen auntza: lizarretaño,
belar mixeri izugarrie dago-ta.

MARTIN ANTONIO: Malda gora ibiltzen astu ote zaidan
edo. Ango zelaiak, Iparragirre, zeu nekauko
zera. Zaldi bat balego ederki. Neoneri ere zaldi
gañean ibiltzeko gogoak egin zaizkit.

IPARRAGIRRE: (*Parrez*) Basarrin ezta izaten astoa bes-
terik.

JOXAKIN: Ta pizkorra bera; eramango zaitu bai.

IPARRAGIRRE: Karga txarra da nerea. Zuek itzuli bitar-
tean atarin geldiuko naiz aize preskoa artzen.

JOXAKIN: Bero dago amen. Gañera sukaldean bagare
gere etxekoandre erretxina dabil-da, aparia ere
ozpinduko zaio. Gosetu naiz bapo.

MARTIN ANTONIO: Ori bear degu zera. Goazen bada.
(*Irurok ateruntz abitzen dira*) Gaztañak eltzean
dare egosten, ta gañerakoak...

JOXAKIN: Poliki da aurten. (*Beatzaz urrutira erakut-*

siaz) Ara! auzko urki bakar ura, araño da gure mendia.

MARTIN ANTONIO: Auntzatic aurrera erri-mendik izango dira?

IPARRAGIRRE: Oriek izango dira nereak. *(At dijoaz)*

AMARGARREN AGERRALDIA

Ixabel eta Lutxi.

(Barrengo atetik sartuaz).

IXABEL: *(Asarre ta otsegiñaz)* Non zabilta emakumea! Gaur guztin arten ernegazio ederrak pasa azten dizkidatzute. Jesus! Bata ola, bestea ala. Ara ze, nolako semeen etorrera. Ta beste muxin ori; señorita delikara daukagu... *(Lutxiri urbilduko zaionean)*. Eztakit zertan sukaldetik alde egin dozun. Gero, prestauko da bakarrik aparria.

LUTXI: Barka beit baña... etxean artu ditugun bi orik... eztakit nola esan ere... Txapartegin berrogei urte ontan neskame nago ta uste det zerbait banaizela arlote orrek ez kargurik artzeko aña...

Kuirao, gero. Beste ori... laguntza ederra etorri zaio etxekoandrearari, atsalde guztin or dago damia bezela. Gure Martin Antonion zai badago!

IXABEL: Uste al dezu?... Baita zera e!... Olako errañarik ez degu Txapartegin bear. Kanpoa, kanpo!... Bere gurasok gaztigauko ditut lenbailen billa etorri ditezela. Zeñek esan?... Ekin egin dit, ea, «a ver» zera derrigorrean... Atrebiu!... Izane! kostalden ortutsik kalean oi diran sardin saltzalle orik lotsagabek izaten dira.

LUTXI: Okerragoa da beste likizkeri zikiña; jun dedilla bai emendik lenbailen bizarraundia!... Eskola ona erakutsiko dio pikaro alenak.

IXABEL: Gizonok opariko erregalok dira ok.

LUTXI: Zurrupatzalle ta alper galanta lpartagirre ori. Eztegu etxetik belakon botako. Eztet gaur goizen ezautu. Bere denboria guztin erromeritik erromerira, jos! ibilli izan da, neskatxa guztin atzetik, kaso egin bagenio, ta orain zartu danean bestek manten zala.

IXABEL: «Lokes» eztiot oirik emango. Mandion lo egin zala.

LUTXI: Eztu leku obetan aspaldi bere burua etzan ez. Zikiñagoa dago...

IXABEL: Ur bedeinkatuakin etzatean igurtzi bear.

AMAIKAGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Guadalupe ta Iparragirre.

(Azkeneko auek biok sartzen dira).

IPARRAGIRRE: Ola! emen gatoz Nagusia ta Martin Antonio Lizarretako barrutira io dira zerbait ikusi bear dutela-ta.

IXABEL: Asko da zu bage nola juan diren. Guri ere esan besterik etziguten zeu emen geldiu azi barik.

LUTXI: Sukaldean beti ze arrapau izaten baita...

IPARRAGIRRE: *(Mindua)* Pobre naiz baño ez lapurra.... Denbora gutxin galaziko zaituet... *(Asarre Lutxiri)* Beste leku batean ez lizkidatzuke irañok arpegia botako ta gutxigo nere izen ona kendu naiko neskatxa onen aurrean...

GUADALUPE: *(Bildurti)* Guazen emendik.

IXABEL: Bazoazke bai; eztegu gogon kontra iñor etxean artu gura.

LUTXI: Milla pantansi bai! Mundua korritu-ta azkenean basarrira etorri, arto ta esne jatea. Ortako eskolan ikasi bearrik eztao gizonak.

IPARRAGIRRE: Zeuk askorik eztezula ezaguna da beñepein. Emendik bidaldu nai nazute ta alde egingo det, bai, bi bider aitatu baño len. Geldiu neike «Txaparrtegin» nagusiak besterik ez agindu bitartean. Bañan, eztet neu merio pamilin asarrebiderik ipiñiko. Jungo naiz, bai, laister! (*Sendogo*) Bai, laister. Orain bertan!...

GUADALUPE: Nire bai!...

IPARRAGIRRE: Ez, leno zere gurasok jakiñan gañean jarri bear ditugu.

IXABEL: Bazoazteke bai biok ere... (*Iparragirreri*) Zeuk eztakizu obeto ba, neskeak zer egin bear don?

LUTXI: Neskaxa pijo artuko genun etxekoandretzat.. Bersok ere aguro aterako ezpalizkioteke ba....

IPARRAGIRRE: (*Sutan*) Ixilik zare? suge mingañ pozoidun orretaz!!! Ajolakabe ezpesten!... Ez iñor lotsatu-azi zeuk aspaldi galdu bazenu ere. Ta au (*Guadaluperen aurrean jarriaz*) nere umea balitz baño gogotsuago babestuko det. Zere lerdeak eztu zikinduko!

GUADALUPE: Bixenten aurrian esan biar lituke arrokeri

abek. Ta ain atso zarra ezpalitz neonek astin-
duko nioke ederki mototza.

IPARRAGIRRE: *(Gibela bi atsoai emanaz)* Goazen
lenbailen; arropa pardela ta gañerakok artu
itzatzu ta bereala abituko gera, zu etxeruntz...
Egundaño olako azio kaskarrik ikusteko negon.

GUADALUPE: Edozein tokira emen gelditu baño...
(Etxebarrura sartzen dira biak)

AMABIGARREN AGERRALDIA

Ixabel eta Lutxi.

IXABEL: *(Ixillune baten ondoren)* *(Garratz)* Orain zoaz
ballara guztin zabaltzea emen gertau dana.
Aste oson giltzapean zeu eukitzeko gogoia ema-
ten dit... Zer esan bear doten Nausik ta Martin
Antoniok! Zeuk dituzu kulpia guztiak...

LUTXI: Ez andrea! Neu ezertxon sartu al naiz ba! Ez
etortzea zuten...

IXABEL: Ixilik egoteko emontre! Zere zeregiñetan
egon baziña etzan olakorik pasauko...

LUTXI: Ordun beorrekin erritan egingo zuten...

IXABEL: Tira! astindu zazu su ori gañeantzen lapikoa ezta erosiko etsi amu arte.

LUTXI: Babarrun berrie ipiñi det bada. Ur otsean ere urtuko litzakena. Salda ederra egiten ezpazaio bada; oliok eztu bear esateko.

IXABEL: Gaurko apariak erreusaie ere izango du. Jox! eu ezpiarra. Dana gizonezko etxean etzeudelako.

LUTXI: Eztira aparte. Ikulluko atetik norbaitzuk bada-biltza. *(Oartuz)* Bai, aita semeak dira...

IXABEL: Eztitezela Iparragirre-ta jun. Ea zertan ari diran... zoaz ikustera...

(Joxakin eta Martin Antonio azaltzen dira).

AMAIRUGARREN AGERRALDIA

Ixabel, Lutxi, Joxakin eta Martin Antonio.

JOXAKIN: Emen gera, emen gera!...

IXABEL: Uste non betirako mendia jun ziñatela.

JOXAKIN: Or Lizarretako barrutian izan gera. Semeak ikusi bear zola-ta.

LUTXI: Izardia atera azi didazue beñepein...

MARTIN ANTONIO: Au ezta ezer. Ba, ez ikustera ez non sinistatuko satorrak egiten dituzten kalteak. Ez ba; biartik sator eizian sayau bear det.

JOXAKIN: Alperrik da. Leno ere zepokin-da galdu ditugu makiña bat, berriz ere sortzen dira madarikatatuak.

IXABEL: Kuxirare ona ikusten jun zerate! Gero ere satorrak or izango dira bai. Bitartean emen...

MARTIN ANTONIO: Ezta jolasa. An Amerikan beste zomorro apo saltari alako bat izaten da; baña plagia. Emendik Zumarragaño bitarteko bidean zabaltzen da. Ezin konta ala kilkerraren antzeko pizti ori ta landare ta soro guztiak txiki-txiki eginda usten ditu.

LUTXI: Guztik kantari asten badira ezta atsegin izango.

IXABEL: Zure ateraldik aditzea baño atsegiñagoa.

JOXAKIN: Asko da biok beti «armonin» aditu bear dezutela.

IXABEL: Zeuk aña gibel izan ezta.

JOXAKIN: Non dira Guadalupe ta?

IXABEL: Eztezu beingoan galdeu!... Emen itz batzuga-tik asarre birea ipiñi dute Lutxikin...

LUTXI: Ez, andrea.

IXABEL: Ixilik zare kilkerra bejela egon barik. Desapio-ka asi dira badijoazela-ta, emen bizi baño obea dala zera-ta, milla matrikullu ta aundi uste. Bai, jun ditezela ba...

JOXAKIN: Ezin leike! bañan zea....

IXABEL: Eztakit, neuk eztitut bialdu.

JOXAKIN: Zergatik dijoazen ere? Ederra egin didazute bion artean (*Ixabel ta Lutxigatik*) Etxeko peza guztia galdu dezute.

MARTIN ANTONIO: Satorra ta pipiarena egin dute.

(Une ontantxe bidetik Iparragirre ta Guadalupe agertuko dira. Badijoaz) (Batak bere gitarra ta besteak bi pardeltxo ta otarra eskutan daramazkitela. Antzeztokia zearkatzen dute ixilik eta naigabetu antzean, eskutatu arte).

IXABEL: Or konpon! Biak ere eztira urruti ta... zeok ikusiko dezute.

JOXAKIN: Atoz seme. Ez ote zuten ola alde egingo... (*Aita ta semea etxe barrura sartzen dira ta Ixabel eta Lutxi atean gelditzen dira zer gertatuko*

*da jakin miñez. Barrendik datorrela Joxakinen
otsa entzungo da) Joxe mai!... Gua. ..lupeee!
Joxe maiiii! (Ta arin-arin zapia eroriko da).*

AZKEN ZATI (EPILOGOA)

LENBIZIKO AGERRALDIA

(Lenengo atalaren ikuskai berbera.- Goizaldea da. Ekaitzak eta itsasgorako ur biztak bazterrak astindu dituzte nun nai aztarrenak utsirik. Baretzen dijoa. Iñor ez antzeztokian. Auzo onetako bizilagun orok kaia-runtz joanak dira ekaitzak itsasoan arrapatu dituanen albisteak jakitera. Zapia altxa ondoan txandaka eta banaka emakumezko batzuek, sardinsaltzalleak edo antzeztokia zearkatuko dute tximista egiñean eta albatan. Itsasoan zerbait gaitza gertatu da. Berriz bakartadea antzeztokian. Andik pixkabatera Iparragire ta Guadalupe eltzen dira. Susmurra beren belarrietara ere iritxi zaie. Arrera txarra etxeakoak egingo ote dien beldurraz gañera, berekin aizean dabillen aztiantza beltzaren artega daramate).

GUADALUPE: *(Atariraño urbilduaz) Lotan daudela dirui... Ezpa... Aspaldi guztik jekiko ziran. (Ateari bultza egiñik) Itxita dago... (Bat batean naiga-*

betsu) Zerbait txarrapasatu da!

IPARRAGIRRE: Ez, emakumea.

GUADALUPE: Bai, galdu egingo ziran treñero ta baporiak... Ito!... Bai, iñor ezta etxian... karrikan dira danak... Guazen karrikara!

IPARRAGIRRE: Arritzekoa da iñor ez izatea. Bide ondoko etxeak ez dira ain erraz bakarrik usten. Itxoin zazu, itxoin. Ia, otseinda (*Otsegiten dute*). Etxean ezpada emen ingurun norbait agertuko da, ez gare basamortuan.

GUADALUPE: Okerrago! Galerna! Galerna!... Jesus! Gualupeko Ama Birjiña erruki deilla gutzaz... Ni banua (*Sotinka*) Zer pasatu ote da?...

IPARRAGIRRE: Apika ezerez, emakumea. Gaztea izan, gauza gutxingatik estutzen zera. Nere urtetan zerbait ikusia nago ta...

GUADALUPE: Bai, ta nola eztago iñor etxian?

IPARRAGIRRE: Goiz da, lotan egongo dira...

GUADALUPE: Bai zera, ama, argizkillako meseta juten da-ta. Gañera bi emakume ikusi ditut; korrika portu aldera artu dute.

IPARRAGIRRE: Sardinsaltzalle batzuk. Guadalupe, gau guztin eztegu begirik itxi-ta ezta arritzekoa orain amets txarrak egitea.

GUADALUPE: Bai, ta (*Ibai ertzera adi-adi begiratuaz*)
itxasuak bota ditun tretza, sare ta ola puskak...
Begira! begira! (*Biatzaz zuzendurik*).

IPARRAGIRRE: Non?

GUADALUPE: Ara! ortxe; (*Ertzera urbilduaz*) (*Antsi egi-
ñaz.*) A! treñero batena dira...

IPARRAGIRRE: Txalopa zarren batenak...

GUADALUPE: (*Deadar bat ateriaz*) A! ola txuri
gorriak... ezagutzen ditut. «Guadalupeko Ama
Birjiña» zeritzan treñeruanak dira... (*Negarrez*)
l.. to.000...

IPARRAGIRRE: Mariñelan batzuk larri zebiltzenen utsia
izango da. Berak ontzi aundigon sartuta legor-
ren oñak ipiñiko zituzten bai.

GUADALUPE: Estropada onekin irabazi zuten-da...
Barruan jungo ziran Bixente-ta, galdu egin dira
galdu...

IPARRAGIRRE: Ez, maitea ez. Ezbearren bat gertau
bazaie ere sasoi bikañekoak dira mariñelak ta
ekaitza menderauko zuten.

GUADALUPE: Ta treñerua?...

IPARRAGIRRE: Treñeroa ba, treñeroa itsasoak leno
elbarritzen du giza-seme bulartsuak baño.

GUADALUPE: Emen zertan gaude ba? Marinara jungo

naiz ta dana jakingo det.

IPARRAGIRRE: Ez, leno etxera joatea dagokizu. Aztu al zazu atzo atsalden non giñan eta ez gaituela espero?... Adiazi egin bearko diet, nolabait, zera... ango etxekoandreakin eztagola konpon-tzerik... Bioi egin ziguten arrera txarra ta ostera etxera zatozela. (*Ixillunea*)... Neu... nitzako... eztago atsedetik; zartuta ere beti ibilkari...

GUADALUPE: (*Oarkabe Iparragirrereren erausiari*) (*Xalo*) Zergatikan asarretzen da itsasua ta gizonak galtzen ditu?...

IPARRAGIRRE: Eztakit kutuna; andretxuui negar egin azteatik izango da. Bañan zeuk eztezu negarrik ixuri bear. Ikusiko dezu nola eztan ezer gertau. Emen itxoingo degu.

GUADALUPE: Itxoin ez!...

IPARRAGIRRE: Ara! andre bat! Orrei galdeuko diogu. Onuntz dator.

GUADALUPE: (*Burua itzuliaz eta gerbait alaituaz*) Joxe-pa da-ta! (*Otsegiñaz*) Joxepa!! da!! (*Laisterka bereganaturik*) Joxepa? zer pasatu da? Karrika-ra al ua?

(*Joxepa etxeko neskamea oñutsik agertzen da*).

BIGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Joxepa.

JOXEPA: I, emen Gualupe?...

GUADALUPE: Arrantzale danak bueltatu al itunan?...

JOXEPA: Etzekiñat; baforiak galernak arrapatu izkiñala esan diten da.

GUADALUPE: Danak?

JOXEPA: Ezten gutxi nai Marrukoneko iru baforiak...

GUADALUPE: Ordun Bixente-Bixargori-ta... Berak dira bai (*Itun negar egiten du*)

IPARRAGIRRE: Bañan nunbait legorra ikutuko al zuten: Pasai, Donostin edo Getarin edo....

JOXEPA: Ez ateratzia zuten. Pello Txilborek esan omen ziyen galerna zetorrela.

GUADALUPE: Pello txilbor! a ze jakintsuba! Orkolagak baño geiago jakingo du...

IPARRAGIRRE: Garaiz kontun jausiko ziran eta toki segurun izango dira onuzkero.

JOXEPA: Itxasun oso barrunbian sartuak emen dira...

GUADALUPE: Auxe da desgrazia! Ito badira.

JOXEPA: Etzuten irten bear-ta.

IPARRAGIRRE: Ta zer diote errian? Beste arrantzaleak salbatzeko alegiñak egingo dituzte...

JOXEPA: Goizaldean esan dute or aurrean bafore bat azaldu dala siñaliak egiten. Bixargorri zala aditu det; Axentxio, bi Artolanekuak-eta Kaximiro, Joxe Xabier-ta laguntzera irten emen dira. Jen-dea beintzat ikusmira jun da...

GUADALUPE: Ama-ta ara juango ziran?

JOXEPA: Eztiten asko usteko emen agonala; abixatuko zionatet.

GUADALUPE: Ez, ez, abek utzi, (*Pardela*) aldatu ta neroni juango naun.

JOXEPA: (*Iparragirreri*) Sartu bedi berorri ere. Goizetan preskatzen asi du ta.

IPARRAGIRRE: Bai, negua bertan baitago. (*Irurok sartzen dira.*)

IRUGARREN AGERRALDIA

(Kai aldetik jende pilla bat dator. Erdian Bixargorri beste guztiaz ingurututa. Bus-tita, ur tantoak buru ta soñekotatik

*dariela. Oste artean ezagutuko ditugu
Zerain eta Leokadi. Guztiok adi-adi
Bixargorriren jarduna entzuten bezela
datoz.)*

BIXARGORRI: Bai, beltza izan da, beltza!... Ezkenduan ezertako betik izan... Goratu orduko zabukan asi giñan.Itxasua beñere ikusi deten gaixtona. Zertzan ura! Bizkai aldian triskantza ikaragarriya egiña izan biardu.

LEOKADI eta BESTE ARRANTZALEAK: Ene!... Au negarra zenbait etxetan!... Gizajuak!... bai, ta andre ta umiak... a! aa!!!

ANDRE BATEK: Arrantzale trixtia beti arixkuan. Aberatzak arrantzara jun biar baluteke beste modua moldatuko lirake bai...

BESTE BATEK: Pobrea, beti pobre!

LEOKADI: Eta nola jaso zaitute zu bakarrik?...

BIXARGORRI: Eztakit ezer. Txalopa irauli zan eta «Kankallu» eta Manu ez nitun geyo ikusi. Naiko lan banun neonek ezur azalea ezin ateriaz. Bixente bakarrik sumatu nun an txalopan ingurun zebillega eldu nayeian. Andik pixkatea danbada bat etorri zan eta ura ere eskutatu zidan. Eskerrak

ordurako nere gorputza txalopari ondo lotu ta estu-estu egin nula bestela...

ZERAIN: Gero igari jakiteak balio dula esango dute.

BIXARGORRI: Olakotan ez igeri ta ez igesi.

ANDRE BATEK: Olako mutil onak, Bixente «endemás».

Jainkoa errukitu dedilla... Itxaso madarikatuba beti beria egiten du. Gure Joxemigel difuntuba ere alaxe galdu zan.

BESTE BATEK: Zer egingo zayo bada, Jainkuak ala naiko zuben-da...

LEOKADI: Ez al da ordia iñundiko itxaropenik izango? Gaztiak dira ta baliteke.

BIXARGORRI: Bai zera! Ayek unuzkero ondo itxasuko auko zuluan dira bai.

GUZTIOK: Trixtiak, gaxuak... au da pena!!

BIXARGORRI: Bai ala da. Gaztiak zigortu ta gu berriz erespetatu. Zeñek esan zemakiten umore onakin.

ZERAIN: Gazteak izaten dira okerrenak. Edozein egualdiakin irten bear dute-ta. Egunez lanik egin ez ta trabernan eta gabez ezer ikuste ezta-la ontzin sartu ta itsasora.

LEOKADI: (*Asarrantzean*) Ori! ori! ori! Zera... Arrantza ezta garo biltzia.

ANDRE BATEK: Mixeri ederra etorriko zayote.

BIXARGORRI: Obe da mixeria bartarratseko gauba baño. Zer jan eztunak eskatu edo ebasia, nola-bait ere lan eginda, arri karraiouan gosia kentzeko aria arriskorik gabe irabasten du. Gure lagintzan berriz... ura estuasuna gau guztikua; itxasuak iru mutillak eraman zizkidanian, uste nun banijuala ni ere aien atzetik. Ta ola, lau ordun Atxentxiok-eta gaur goizian jaso nauten arteraño. Bada itxasuan egiten dedan laugarren zillipurdia. Onik ordea...

BESTE BATEK: Guadalupeko Amabirjiñari eskerrak.

BIXARGORRI: Aizu, olakotan eztakit nik zenbat agur Maria ta oraziño esan eztizkiotan... Baño! akabo! neriak egin du; akabo nere arrantzak.

LEOKADI: Bai, betiko lelua.

ANDRE BATEK: Ori esan ori!

ZERAIN: Sagardo puska bat erango dezu otsikarak kentzearren.

LEOKADI: Leno ere naiko bustiya dago: salda edo kapesnia eskeñi bazeniyon.

BIXARGORRI: Orain arropak aldatu-ta kofradira joateko agindu diote. Eklaraziua egitea; zein giñanda...

ANDRE BATEK: Ezer txarrik aiengatik eztezu esaterik beintzat; Manuel eta Kankallu gizajuak prozeziuan ere soldaru izaten ziran.

BESTE BATEK: Ta Bixente San Migel.

BIXARGORRI: Broma ederrian zijuazen irurak. Biak Bixente zirikatzen trixterik zegoako. Guadalupe zula... zera...

LEOKADI: Eztaki asko gizajuen ondarena.

AZKEN AGERRALDIA

Lengoak, Guadalupe ta Iparragirre.

(Atean zegoalarik aurreko agerraldiaren azkeneko itzak entzun ditu ta besterik esateko indarrik gabe bere amaren besoetan eroriko da.)

GUADALUPE: Ama...a!! *(Guztiak arrituta ta pixka batean ixilik begiratuko diote.)*

LEOKADI: Zu emen? Jos! Ze pasatzen da?

GUADALUPE: *(Negar antziak galeraziko date zer esaten dun aditzea.)*

ZERAIN: *(Iparragrrrreri)* Atzera emen al zerate? Itsa-

soko ekaitza ikuste ala?...

IPARRAGIRRE: Ez, legorreko ekaitzak bultza gaitu.

ZERAIN: Legorreko ekaitzak ajola gutxi. An aterpea nun nai billa oi da; leiza zulon baten ere.

IPARRAGIRRE: Ez beti.

ZERAIN: Apustu egingo nuke ez dala Goierrira ekaitzik iritxi.

IPARRAGIRRE: Iritxi da bai, bestela ez giñan onuntz etorri izango.

ZERAIN: Ze albiste goierri ortan, Indianok zerbait astuta billa al zatozte edo?...

IPARRAGIRRE: Albiste txarrak an eta emen. Bai. (*Asieran zalantzan ta gero ta sendoago*) Ustez, zeuk alabea aidien etxera ta ez mirabetzat bidaliko zenuen, ba, an Txapartegiko etxekoandrek zere alabeari tratamentu okerrago eman dio zakurrai baño. Guztia emen gizaseme leial bati itza emana zeukala aitortu zulako.

ZERAIN: Ba al degu orain ere.

IPARRAGIRRE: Guadalupe ta bioi egindako desprezio ta irañak ikusi ondoren ez gindezken an gelditu; neskatzak etzon nai iñolaz gaua an pasau, ta arren laguntzeko ta laguntzeko etxera ta onela zuengana ekarri det. Zuek derizkiotzutena era-

bakiko dezute.

ZERAIN: Ta zein zera zu gere pamiliko gauzetan metitzeko? Ze erritik bialduta emen besten bizkarretik bizi gurako dezu...

IPARRAGIRRE: Ez, zere alabak berak erregututa ez nion trixtiari etzekoa emango negarrez ikusita... Eztizut ezer eskatu. (*Ixillunea*).

LEOKADI: (*Alaba utzita senarraganun urbilduko da*) Matias!... Naigabeak asten diranean guztiyak batian. Zumarragaguak Guadaluperi egin dioten aziyua.

ZERAIN: Eztitu arrek kulpeak ez; gere alaba berotu dunak...

LEOKADI: Guazen, guazen etxera. (*Guztioi*) Lenguak naikua ezta orain etorri zaigu buruauste berria... Gosaldu nai badezute?...

GUZTIOK: Milla esker; eskarrikasko; orain goaz gure...

BIXARGORRI: Nik bai bai, utsagua daukat barrena. Andrerik eztaukat baño (*Leokadigatik*) lengosu au onagua da...

ZERAIN: Pertzakara esne beti izaten da gure etxean eta danontzat zerbait izango da (*Iparragirreri*) Zeu ez gañeko guztintzat. Emendik aurrera galazia daukazu nere etxeko sarrera. Gosaldu

nai badezu bada zoazke beste tokira... (*Ustegabeko aupada onek guztiak ixildu araziko ditu... Zerain eta Bixargorri etxeruntz abitzen dira; ama ta alaba ere bai ta beste auzokideak sakanatzeko giñoan daude. Iparragirrek erdi-erdian naigabea eskutatzeke alegiñak barren-dik aterata diosa*):

IPARRAGIRRE: Bai, bai... naigo det gosea, gogo txarretik emandako ogia baño. Zarra nago bañan erriz-erri kantatuko det arrantzalien negarra.... Ta txanpon batzuk bilduko ditut urikalduen alde.... ta aztuko ditut neonen penak... (*Biotziki-karatuta*) Agur jaun andreak! Ibai maite onek, Bidasoak erakutsiko dit Elizondorako bidea... zuek eskale arrotza bezela ezetsi nazuten eskero...

Euskaldun batzarra nitzaz errukituko ote da; errukitu Euskalerra ainbeste maite dun onetzaz. Aztu dute arbol bedeinkatuan zortzikoa sortu zun arlotea... (*Bijoa ZAPIA astiro erortzen dalarik*).